

...eta kitto!

776 zkia. 2011-IX-30

ASTEKARIA

TOKIKOM

Bihar Untzagan txinpartak lagun

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com**Elkartearen E-MAILak:**elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEÑUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Gipuzkoako Sagardogileak

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.050 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

HORMA BIXAK JO.- Pelotan, horma bikoa egin. "Horma bixak jo zetsazen, baiña pelotiak erreixatik kanpora urten eta galdu eban jokuaz".**HORMIAK BESTE ENTZUN EZ.-** Norbaitek gorraize handia duela adierazteko konparazioa. "Urkiko gorrak, hormiak beste ez zeban entzutzen".

ESKUTITZAK

ION GARATERI ERANTZUNEZ

Ion Garate Gonzalezek idatzitakoaren harira, gauzak ez nahastea eskatuko nuke: lan akademikoa eta politika ez nahastea Armeria Eskolaren aurka jotzeko.

Garatek zioen ordezkari sindikal askok kezka azaldu zituztela eta, ondoren, hiru enpresen izenak jarri zituen. Lan Praktiken arduraduna izan nintzen iazko ikasturtean eta bi ordezkari zuzendu ziren niregana: bat informazio eske eta bestea ikasle baten egoera salatuz. Lehenari eskatutako informazioa eman nion eta, bigarren kasuan, lantokira joan nintzen ikaslearen lan-baldintzak ezagutzera eta ikasleak berak esan zidan gustura zegoela lantokian. Dena dela, iazko ikasturtean ehun ikasle inguru izan genituen lan-praktikak egiten, eta bai ikasle zein enpresek oso ongi baloratu zituzten lan-praktika horiek, eta lan-mundua ezagutze-ko ezinbesteko modulua dela deritzote.

Badakit gauzak batzuetan ondo eta bestetan ez hain ondo egiten ditugula, eta batzuk besteak baino arduratsuagoak eta profesionalagoak direla ere, baina Armeria Eskolako eta beste eskoletako irakasle on helburua ikasleak hezte da, eta hori dudan jartzea larria deritzot.

Gai politikoetan sartuta, Espainiako buelta gure herri pasatzea ez litzaidake gaizki irudituko atzerriko herri batean sartu zirela onartu izan balute; horrelakorik gertatu ez zenez, niri ere gaizki iruditu zitzaidan bueltako ekitaldietan parte hartzea. Eta, jakina, erregetxea errepublikaren sinbolo den herri batera gonbidatzearen aurka nago. Baina Armeria Eskolan, beste edozein lekutan bezala, pentsaera ezberdinak ditugu.

GARIKOITZ GARMENDIA

(Armeria Eskolako Lan Praktiken arduradun-ohia)

ESKERRIK ASKO LEGARRE

Egun ederra pasatu genuen zapatuan Legarre auzoan, parte-hartze handia eta giro politarekin. Auzoko jai txiki eta xumea, baina duina eta ilusioz bete. Lan asko egin behar izan dugu; baina, zalantzarik gabe, merezi izan du.

Ez gara bakarrik egon eta jende askori eskerrak eman beharrean gaude. Eskerrik asko bene-benetan auzokideei. Euren diru aportazioa eta euren gogoak bultzada handia eman digu. Eskerrik asko jaietara azaldu eta lanean amaitu zuten guztiei. Eskerrik asko diruz lagundu diguten dendari, tabernari eta enpresei. Eskerrik asko Gaztetxeari: euren kontura joan ziren gure pankartak. Eskerrik asko trikitilari, bertsolariei, pailazoei, abeslari eta musikoei. Eskerrik asko auzoko elkarte bietan egon zuten

lanarengatik, salda eta txorizo ederrak eta gisatu mundiala prestatu zuten sukaldariei. Eskerrik asko Elgetako Udalari, eurak laga zizkiguten-eta buruhandiak borondate guztiarekin. Eskerrik asko Eibarko udal brigadakoei, euren borondatea eta egindako lanak asko erraztu baitu gurea. Eta, jakina, eskerrik asko Legarrera etorri zineten guztiei. Datoren urtean ere bertan ikusiko dugu elkar.

Bestalde, jai egindako zozketan saritutakoak honakoak dira: 1. saria (bi lagunendako afaria Txal-txan) 1.224 zenbakiarentzat; eta 2.a (lau lagunendako afaria Gure-Lekun) 552 zenbakiarentzat. Zenbakiak jabeek Legarre-Gain elkartetik pasa daitezke edo Jai-Batzordera jo dezakete.

LEGARREKO JAI-BATZORDEA


asteka

HEMEROTEKA

esaldia

"Hiri gehienetan ez dira kontuan hartzen pertsonen behar konkretuenak eta, horien ordez, mugikortasuna da guztien buruetan dabilena; autoari lotutakoa, gainera. Adinean aurrera goazenei ere pasiatzea gomendatzen zaigu eta, horretarako, parkeak eta plazak behar ditugu. Baina, klimari ere erreparatu beharko zaio, ezta? Seguru guztiok ikusi duzuela, noiz edo noiz, apenas erabiltzen diren bankuak: gerizperik gabe udan bertan ezin delako egon eta neguan, bestalde, babesik ez dutelako"

(Teresa del Valle, antropologoa)

EIBARKO
UDALAGIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldirak

a u t u a n

UCAS DE ARRATE

Erreskate-txakurrak eta euren gidarixak hartzen dittuan UCAS de Arrate taldekuak eurekin bat egin nahi dabenendako matrikulaziñua zabaldu dabe. Interesa dakenak taldeko arduradunekin hartuemonetan hasteko aukeria dake internet bittartez Facebook-en edo unidadcaninaarrate@hotmail.com helbidera idatzita edo, nahixago izanez gero 629894590 telefono zenbakira deittuta. Txakurrak eta euren gidarixak entrenatiaz gain, preparatzen dittuen probetan figurante izateko (biktimarena egitteko) prest dagan jendia be ongiatorri izango da.


**TRIO CALAVERAS
HIZPIDE**

Martitzenian, Aula de Cultura DV-k babestuta, Trio Calaveras Mexikoko talde ezagunaren gaineko erakusketa multimedia eta hitzaldixa eskinduko dittu Saturnino Sáez de Ibarra taldiaren jarraitzaile, bildumagille eta ikertzailliak. Nahi daben guztiak eukiko dau hitzaldira juateko aukeria, 18.00etan Portalera agertuta.

Udazkeneko ikastaruak UEUn

UDAKO EUSKAL UNIBERSIDADIAK (UEUK) UDAZKENERAKO PREPARAU DABEN IKASTARO-ESKINTZA PRESENTAU DAU aste honetan bertan, eguaztenian Markeskua jauregian. Ikastaruen barri Ane Sarasua UEUko Kudeatzaile Nagusixak eta Mari Karmen Menika Ikastetxe Nagusiko arduradunak emon dabe eta, esandakuaren arabera, urria eta abendua bittartian 25 ikastaro emongo dittu UEUK Baionan, Eibarren eta Iruñean. Ane Sarasuak azaldutakuari jarraituta, *“Eibarko eta Debarrenako erreferentzixa akademikua izan nahi dau UEUK eta, horretarako, Markeskuan (ikastetxe nagusixan) eskintza propioaren inguruko atala zabalzia erabagi zan. Eibar inguruko euskarazko formaziñorako eskintza zabaldu nahi dogu, beti be etenbariko prestakuntzaren alorrari lotuta”*.

Udazken honetan Eibarren bederatzik ikastaro emongo dittue, hiru atal nagusitan banatuta: Informatika eta Teknologixa barrixak atalekuak “Moodle 2.0-ren oinarritzko erabilera (on line)”, “Geogebra erabiltzen ikasi: hastapenak (on line)” eta “Teknologia berriak eta intimitatea” dira; Giza eta Gizarte-gaixak atalekuak “Arreta falta eta hiperaktibitatea duten ikasleekin modelatze-lana”, “Komunikazio eraginkorraren artea (II. Modulu)”, “Argazkigintza dokumentala”, “Gaur egun-




Menika eta Sarasua aurkezpen ekitaldixan.

go munduaren historia” eta “Tantra: maitasunaren atea”; eta Bizitzaren Zientziak atalian “Gaixotasun konplexuen genetika” izenburukua emongo dabe.

Bestalde, eta ohikua dan moduan, Eibarko eta Elgoibarko udalak bertan erroldatutako herritarrendako diru-laguntzak emongo dittuela iragarri dabe eta, horrez gain, prezio berezixak dagoz ikasle, langabetu eta jubilaundako. Ikastaroetan izena emoteko epia zabalik dago eta ikastaro baktotxa hasi baiño astebete lehenago itxiko dabe. Informaziño gehixagorako edo matrikulia egitteko www.ueu.org helbidera jo leike edo 943821426 telefono zenbakira deittu.

Eskillara mekanikuak J.A. Mogelen

AURREKO ASTEKO ASTELEHENIAN HASI ZITTUEN JUAN ANTONIO MOGEL AUZUAN ESKILLARA MEKANIKUAK IPINTZEKO biharrak eta 4 hillebeteko tartian amaituta egotia dago aurreikusita. Ipuuruako Juan Antonio Mogel auzo-



ko 197 etxebizitzak 50eko hamarkadan jaso zittuen eta bertako akzesibilidadia hobetzeko asmoz hainbat ekimen eruan dittue aurrera azken urtitan, bestiak beste foball zelaixaren pareko eskillarak saihesteko igogaillua ipiñitta. Oñ hasi barri dittuen biharrak auzorako beste sarrera nagusixari eragitten dihardue zuzen-zuzenian: San Kristobalgo aldapatik gertuen eguazen eskillarak eta haien oiñetan eguan Collado kioskua honezkerera eraitsi dittue eta auzo-barruko lorategixak eta ingurua be jasotzen dihardue, eskillarak ipiñi ahal izateko biharrezkua dan tokixa preparatze-ko. Auzoko akzesibilidadia hobetzeko biharrak pagatzen laguntzeko, Eusko Jaurlaritzak Eibarko Udalarari 2'8 millioi euro emotia erabagi eta onartu eban aurreko legegintzaldixan.

IGNACIO AREITIO-AURTENA BOLUNBURU

*2011ko irailaren 18an hil zen,
59 urterekin*

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Legarreko jaixak giro onian


AURREKO ASTEBURUAN, ZAPATUAN, OSPATU ZITTUEN JAI-XAK LEGARREN, URTIOTAKO ETENALDIXAREN ONDOREN.

Goizian hasi eta gaberarte, umiendako jolas eta ikuskizunak bete eben programaziñuaren zati bat, baiña horrekin batera jatekuak be euki eban bere tartia, illuntzian ospatutako patata-tortilla lehiaketia



eta guzti. Eta auzokuak antolatutako bertso-herri-bazkarixan 180 bat lagun alkartu ziran. Bestalde, jaixetan egindako zozketan honetxek izan dira sarritutako zenbakixak: 1.224 (lagun birendako afarixa Chalcha jatetxian) eta 552 (Gure Lekun lau lagunendako afarixa). Sarixa jasotzeko irabazliak Legarre-Gain alkartera jo leikie edo, bestela, Jai Batzordekuekin kontaktuan ipiñi.

Bikain erantzun zetsan jendiak Legarreko jaixetako programaziñuari.
/ LEIRE ITURBE




Alzheimerra zinian

EGUAZTENIAN, HILLAREN 5-IAN, AFAGI GIPUZKUAKO ALZHEIMER GAIXUEN SENI-TARTEKUEN ALKARTIAK ANTOLATUTA, zine-forum saiua egingo da Coliseo antzokixan, 18.00etan hasitta (sarrerak euro bi) Alzheimerren Mundu Eguna eta alkartia sortu zala 20 urte bete dirala gogoratzeko antolatutak daben ekitaldixan Oskar Teje-

dorren zuzendutako "Cuidadores" izenburuko dokumentala ikusteko aukeria egongo da. Iaz Valladolideko Jaialdixan estrenau eben lana beste hiri batzuetako jaialdixetan be erakutsi dabe eta hainbat sari emon detsez. Datorren asteke ekitaldira dokumentalaren zuzendarixa eta protagonistaren bat agertzia aurreikusten dabe.

auzorik auzo



Agiñagako San Miguelen errepikapena

Zapato arratsaldian hasi eta domekara bittartian, astian zihar ospatu dittuen San Miguel jaixeri helduko detse atzera be Agiñaga aldian. Bixar arratsaldian 17.00etan jokatu dabe briska txapelketia eta ordu erdi geruago, barriz, umiendako jolasak hasiko dira: pelota partiduak, diskotekia eta txokolate jana egongo dira, bestiak beste. Illuntzixan, 21.00ak aldian lagunarteko afarixa hasiko da eta gabian, 23.00ak aldera Kupela taldiaren eskutik erromerixiari ekingo detse. Goizalderarte egongo da dantzari jarduteko aukeria eta gau-txorixendako txokolate-jana be eskinduko dabe jaixetako antolatzailliak diran Agiña Elkartekuak. Eta domekan jaixak segiduko dau: 11.00etan Goruntz abesbatzukuak lagundutako meza nagusixa ospatuko dabe, ondoren Zerutxu dantza taldiaren emanaldixa hasiko da, 12.30xak aldera piskolabisaren eta Gorritiren txandia aillegauko da eta, ondoren, 14.30xak aldera paella-jana herrikoia egingo dabe auzokuak. Arratsaldian, 17.00etan hasiko diran idi-probekin agurtuko dittue jaixak, datorren urtera arte.


eibar kaleka

Eguzki-Begi kalia

Barrena kaliarekin paraleluan, parketxuaren pareko kaletik gora doian kaliak daka izen hori. Eibarko Hiztegiaren jasota daguan, eguzkixak bete-betian emoten daben tokixari esaten jake "eguzki-begi".

Pegora kopurua: 2

Erroldatutakoak: 42



asteko
3.000
datua

bidaiarik erabiltzen dabe egunero Eibar eta Ermuaren arteko tranbia eta, kopuru horrekin, EuskoTren linien artian trafiko gehixen dakana da.

Gertutasunezko linietan be Elgoibar eta Durango lotzen daben trenbidia da gehixen erabiltzen dana, urtian lau milloio eta erdi lagunekin.



Debegesa “Lan Onari” sarirako hautagai

EIBARKO UDALAK, DEBEGESA DEBABA-RRENEKO GARAPEN AGENTZIA HAUTAGAI moduan proposatu dau Eusko Jaurlaritzak sustatutako “Lan Onari” sarixa jasotzeko. Jarduera profesionalak garatzeko orduan dedikaziñua, konstantzia eta ekintzailletasuna saritzen dituduan errekonozimendurako hautagaitzaren inguruan Miguel de los Toyos-ek esandakueri jarraituta, *“distinziñuak dakan perfillak eta urte honetan Debegesak Eibarren zeñi eskualdiaren alde egindako biharrak bat datozela pentsatzen dogu eta horregaittik erabagi dogu sarixa jasotzeko hautagai modura proposatzia”*. 1985ian eratu eben Debegesa eta Euskal Herrixan zeñi estadu maillan ga-



rapenerako lehelengo agentzia izan zan. Eskualde maillako alkartia Eibar, Ermua, Elgoibar, Deba, Mutriku, Soraluzen, Mendaro eta Mallabiako udalerrixak osatzen dabe.

Barrenako jaixak ospatuko dittue bixar

BIXAR, ZAPATUA, BIGARREN URTEZ JARRAIXAN OSPATUKO DITTUE AUZOKO JAI-XAK BARRENAKUAK. laz egindakuaren bide-tik, aurten be paella lehiaketia antolatu dabe eta horrekin ekingo detse programiari, 12.30xetan. Parte hartu nahi dabenak 10 lagunendako beste paella preparau biharko dabe, horretarako antolatzailliak emondako osagaixak erabillitta (eurak emondako osagaixetatik kanpo besterik topatzen badabe, lehiaketatik kanpora lagako dittue). Bestela, bikote bakotzak paella egitteko bihar dituduan



sukalderako tresnak (lapikua eta bestelakuak) eruan biharko dittu. Lehiaketia Barrenako parkian (gasolinera parian) egingo dabe. Parte-hartzai-lliak 14.00xetarako aurkeztu biharko detsez pae-llak epaimahaiko kidieri eta jarraixan, 14.30xetan sari banaketa ekitaldixa hasiko da. Lehelengo geratzen dan bikotiak txuleta kilo bi eta garaiku-rra jasoko dittu, bigarrenak txanpain botilla bi eta hirugarrenak arda botilla bi. Bestalde, lehiaketa- rako preparatzen diran paellekin herri-bazkarixa egingo dabe (nagusixendako txartelak 15 euro balixo dau eta umienak 5 euro). Lehiaketan parte hartu nahi dabenak Gure Kaiola eta Bodega Vi- nagre tabernetan eukiko dau izena emoteko au-keria eta, bestela, egunian bertan, lehiaketia ha- si aurretik parkian izena emoten lagako dabe.

Bazkarixa amaittuta, 16.00etan auzoko umien- dako jokuak hasiko dira eta 17.00etan, barriz, Barrenako II. Mus Txapelketa jokatzen hasiko di- ra Gure Kaiolan eta Bodega Vinagren.

Ipparragirreko igogaillua martxa betian

AURREKO ASTIAZ GEROZTIK, BARRENA KALIA IPA-RRAGIRREREKIN LOTZEN DABEN IGOGAILLUA ERABILTZEKO MODUAN dago, biharrak amaittuta egue- nian lehenengoz martxan ipiñi eben eta. lazko uztaillian hasi zittuen igogaillua ipintzeko biharrak Obegisa enpre- sakuak eta danera 566.338 euroko kostua euki dabe; obra osua Madrilgo Gobernuak Udaleri garapenerako emonda- ko Fondo Estataletik jasotakuarekin pagau dabe. Ingu- ruan bizi diranekin hainbat billera egiñ ostian, igogaillua edozeiñek erabiltzeko modukua izatia erabagi dabe eta, horregaittik, herrixan daguazen beste akzesu mekanikuak daken ordutegi berbera ezarri detse igogailluari: goizeko 06.30xetan hasi eta gaueko 23.00ak arte ipintzen dabe martxan, bestela ez dago erabiltzerik. Igogailluan 8 lagun batera, 630 kilo sartzeko aukeria dago.

Untzagako jubiletxe barriztatua zabalik

AGINDUTAKO EPIA- REN BARRUAN, IRAI- LLAREN ERDIALDIXAN ,ZABALDU ZITTUAN ATIAK atzera be Untza- gako jubilatue etxiak, loka- lari metro gehixago emon ahal izateko biharrak egi- tteko uda osua itxitta egon ostian. Txaltxa Ze- laiko parkiñaren zati bat gehittuta, danera 160

metro karratuko azaleria gehittu detse 1.400 bazkide dituduan jubilatue etxiari. Biharrak amaittuta, taberna- ko sukaldiak lehen baiño 10 metro karratu gehixago dakaz ointxe eta tabernak berak beste 60 metro kar- ratu gehixago irabazi dittu. Horre-



kin batera, irakurtzen egon nahi da- benendako zein bestelako jardue- rak garatzeko 50 metro karratuko gela barrixa preparau dabe. Eta gaiñontzeko metruak zentroko bil- tegi bixeri toki gehixago emoteko erabilli dittue.

Azken egunotan diru gehixen dakeneri zerga berezixak ipintziaren gaiñian berbetan dihardue agintarixak, krisixari aurre egitteko dirua batzeko aukeriarendako tartia zabaldua. Baiña gaur egunian zenbat diru euki bihar da batenbat "aberatsa" dala esateko?



PEDRO BARTOLOMÉ
60 urte
maisu industrialia

Jendia zerekin konformatzen dan arabera, batzuk edo beste batzuk izango dira aberatsak, neuk ez neuke diru kantidade bat ipiñiko aberastasuna nun hasten dan markatzeko. Bestalde, logikua ikusten dot gehixen dakeneri gehixago kobratzia.




JON IBARRA
60 urte
jubilaua

Gu behintzat ez gara aberatsak. Zenbat dirutik aurrera esan leike batenbat aberatsa dala? Ez dakit ba, 1.000 millioi pezetatik aurrera? Edozelan be ondo ikusten dot aberatseri inpuestuak kobratzia, bestieri lapurtuta ailegatu diralako aberatsak izatera.


VICTORIA ZABALA
80 urte
etxeandria

Neretako aberatsa izatia ez dau diruak egitten. Egixa da dirua inportantia dala, baiña ez inportantia. Neuk garrantzi haundixagua emoten detsat personiari, zelakua dan eta holako kontueri.



TRINIDAD CARRILLO
65 urte
etxeandria

Neretako aberatsa osasuna eta biharra dakan personia da, horretxek dira munduan duguazzen aberastasunik haundixenak, hortik aurrera bardin detsa zenbat diru dakan.



EGOITZA NAGUSIA
Bilboko 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Erredeketa laber

Egitekerak (Signo poligonar)

Artikuluak: kutxa eta osaguru erretze zerbitzuak

Koatze - Eskala - Urteurrenko ekitaldiak

Erretze eta osaguru zerbitzuak bertan daude

Nazio eta Nazioarteko zerbitzuak

Mugica Ehorzketa

TELEFONUA (24 ORDU)
943 201 951

ARTOLA
jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Astehenetik barixakura
EGUNEKO MENUA
15 €

Paleta iberikoa
Etxeko foie-a
Ganboia plantxan

Legatza laban edo
Bakailaoa Club Ranero erara

Solomilloa plantxan edo
Ahate confit-a

Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Txokolate mousse-a

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Tokia gordetzeko:
943206348

25 € + BEZ

GREMIOEN GIDA

NEW 2008

ANTENAK

BALATZ S.L.
Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ARKITEKTOAK

LIBRAGA & OTERMIN ARKITEKTOAK
Pasadizo 11 - tel. 943 20 22 00 - www.libragao.com
urbanismo, proiektuak, proiektuen egitea, berrantolaketa,
urbanismo / urbanismo, berrantolaketa / berrantolaketa

AROTZAK

IÑAKI
Egurrezko mota Ateak - Tarimak
guztietako lanak Altzariak
Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

Aroztegia Ebanisteria
 Obra aroztegia
C **N**
Egiturak, barruko eta kanpoko atekak,
arimairu enpatratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,
eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak
Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201

AROTZAK

ulmar S.L.
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC
SERVICIOS DE ELECTRICIDAD
INSTALACIONES EN TENSION
TELECOMUNICACIONES
INDUSTRIA MANTENIMIENTO
PROYECTOS
OBRAS PROGRAMAS

GURIA
ELEKTRIZITATEA
* Muntaiak eta
proiektu elektrikoak
Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

GARBIKETAK

escudero
INDUSTRIA GARBIKETA
Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**
Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua
Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171 Barrena, 21 - 1. F

TREJO
GARBIKETAK S.L.
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutzatila - Sorluze
Garbiketa eta
mantenimendua

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



CAMILO ALVAREZ OROKORREAN

– Barne erreformak
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)

– Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
Etxeko tfnoa. 943-207678
Mobila. 620 060 104



IRAZABAL

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azaitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANS GROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

ERREKATXU, 3^{an}
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
c.acha@euskalnet.net
eta faxa: 943 20 39 03

PINTURAK



AIXA

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea



PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



Pinturas Elias e Hijo, S.L.

pintura eta estaldura mota guztiak

BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97



MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Pintura

Goi mailako dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

SARRILAGINTZA



GILTZAK

Era guztietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guztietao giltzen kopiak
Trabatutako atsek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

TEEN-
AJEA

Eibar moda-modan dago. Ez dira berba handiak, izan ere, Roberto Etxeberriak Cibelesko Moda Astean E&O saria jaso du 'Jour de fete' kolekzioagatik. Lan horretan, hala ere, ez da eibartar bakarria izan. Miriam Izquierdo gaztea bere laguntzailea da eta azken urte bietan Etxeberria markak izan duen arrakastaren partaide da guztiz.

MIRIAM IZQUIERDO, modista:

“Patronajea zeozer izatea nahiko nuke”

- Ezer baino lehen, zorionak. Nolakoa izan zen ospakizuna?

Eskerrik asko. Desfilea egin baino lehen Roberto pasarelan zegoen eta beste denak atzean. Orduan, ez genuen ezer entzun eta modeloak barrura sartu zirenean esan ziguten irabazi genuela. Unax argazkilaria eibartarra ere han zen eta saltoka hasi ginen, baina desfilea hastear zen eta ez genuen gehiagorako denborarik izan. Gero, lasaitu egin ginen, eta desfileak saria zergatik jaso genuen erakusteko balio izan zuen. Ostean, saria jaso, eta familia eta lagunekin lasai ospatzera joan ginen. Ez zaizkigu moda munduko festa handi horiek gustatzen.

- Noiztik daramazu moda munduan?

Orain dela lau urte etorri nintzen Bartzelonara moda ikasketak egitera eta orain patronajea ikasten dihardut.

- Eta noiztik diharduzu Robertorekin lanean?

Orain dela urtebete. Lan 'potoloa' egiteko asmoa zeukan eta jendea behar zuen. Harrezkero sari bi jaso ditu-

gu Cibelesen, beraz, pozgarria da.

- Eta zure kabuz bidea egiteko asmoa daukazu?


Diseinatzaile moduan ez, behintzat: ez zait gustatzen. Nahiago dut atzean egotea, patronajea. Lan handia daukat horrekin eta gustura nabil. Patronaje munduan buru-belarri nabil eta gero eta garrantzitsuago izatea da nire asmoa. Lana ahal dudan eta ondoen egiten ahalegintzen naiz, eta hobetzea nahi dut.

- Zein proiektu duzue epe laburrean begibistan?

Roberto Brooklynen dago orain eta gabonak baino lehenago Budapesten beste desfile bat egingo du. Gainera, neguko kolekzioarekin gabilta lanean. Orain Cibelesen hartu duen bigarren sari honekin gero eta lan gehiago irtetzen ari zaizkigu.

- Roberto eta biok eibartarrak izanik, nolakoa da zuen harremana?

Lagunak gara. Bartzelonan eibartar batekin lanean jarduteak berezia da eta elkartu egiten du. Oso gustura nago berarekin, demaseko mutila da-eta.



publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelarik euskarara,
eta ingelesez euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

Karrika eta Suberoa tabernen ekimenez, Bista Eder kaleko asteburuetako gauak martxaz betetzen hasi dira. Rocka nagusi, gaueko giroa suspertu nahi dute inguruan. Aurreko astean eman zitzaion hasiera ekimenari eta harrera ona izan zuen herritarren (eta herritarrak ez direnen) artean. BistaEder Calling, entzun kaleko deia.

Bista Eder-eko gauak mugitzen dihardu

The Clashek 1979an kaleratu zuen London Calling albuma. Reggaea, soula, popa, ska eta rockabilgia bezalako estiloak bereganatu zituen bertan talde britaniarrak eta musika aldetik euren estilo aldaketa orokorra ekarri zuen horrek. Eibarko gauek ere aldaketa bizi dezakete orain.

Karrika eta Suberoaren ekimenak duen leloak dioen bezala, *"bestelako giroa gustuko dugunontzat"*. Horrela zehazten da Bista Eder kalean dauden taberna biek luzatzen duten proposamena. Bestelako giroa, aldaketa Eibarko gauetan.

Eguenetik zapatura, hainbat ekintza antolatuko dituzte asteoro bai Karrikak, bai Suberoak,

Bista Eder kaleko gaueko giroa sustatuz. Joan den astean eman zitzaion hasiera BistaEder Calling deritzon ekimenari. Eguenean, adibidez, pintxopoteak eskaini zituzten taberna biek euro batean 19.00etatik aurrera, eta horrela izango da astero. Barixaku eta zapatuetan, bestetik, gau-giroa egongo



Musika eskaintza apartarekin jendea erakarri nahi dute. / LEIRE ITURBE



da Karrika eta Suberoan 00.00etatik aurrera, *"musika aparta"*, euren berbetan. Horrela, joan den barixakuan DJ Osoron aritu zen Karrikan eta DJ Karba Suberoan.


DJ Kobi eta 90.eko rocka

Rockaren maitaleek dei berria jasoko dute gaur Bista Eder kalean. Karrika eta Suberoa taberneak eskaintza beroa luzatzen dute, rockaren garretan

erretzeko modukoa. Karrikan, batetik, Eskarmiento eta Norman taldeetako kide izandako DJ Kobik rock gaua ekarriko du tabernara 00.00etatik aurrera. Rock&rollaren historiari errepa-soa emango dio kontrabaxu eta bateria-jole honek.

Kaleko beste aldean, bestetik, 90. hamarkadako rocka ekarriko du DJ Karbak Suberoara 00.00etatik aurrera baita ere. Turbonegro, Bad Religion, Faith No More, Guns n'roses, Nirvana, Smashing Pumpkins, Blur, Offspring, Deftones Pearl Jam, Nin eta Radiohead bezalako taldeen abestiekin girotuko du Suberoako gaua.

Karrika eta Suberoa mugitu dira, eta Bista Eder kalea, era berean, rockaren erritmora mugitzen ari da. Bestelako giroa Eibarko gauetarako.



La Salle Azitainen ikasturte hasiera

La Salle Azitainek Arrateko Santutegiko Amato bisitatuz hasi zuen 2011-2012 ikasturtea. Ibilalditxo eta eskaintza ospakizunaren ondoren, ikasturterako helburuak eta La Salle ikastetxe guztiak amankomunean duten leloa aurkeztu zitzaizen bildutakoei. *"Bilatu zure argia, zeu zara izar"* izango da ikasturte honetarako gogoeta eta ekintza gai. Musikaren laguntzaz, zelaian egindako hainbat jokoetan murgildu ziren, parte-hartze handiarekin. Aukera bikaina, beraz, opor ostean ikasle eta irakasleok bat egiteko.

Debegesa garapen agentziak bultzatuta eta Debabarreneko herritar talde batek osatzen daben foroa buruan, gure gizartian baztertuta, gure ahaztuta dagozen gizarte-balixuak atzera be indartu eta sustatzeko helburuarekin sortu dabe Gure Balioak izenburuko proiektua. Herrittarrerri proiektua presentatzeko ekitaldixa martitzenian egiñ eben, Unibersidade Laboraleko aretuan, eta jende mordu batuzan proiektuaren nundik norakuk ezaqutzeko jakinmiñak bultzatuta.



Proiektuaren gaiñeko informaziño osua www.gurebalioak.com gunian ipiñi dabe.

Gure Balioak berrindartu nahixan

Erespetua, integridadia, ekintzailletasuna eta alkarlana edo lankidetzaz, horretzek dira aste honetan ezaqutza ermon daben proiektuaren ardatza, Debabarrenian bultzatu nahi diran lau gizarte-balixuak, hain zuzen be. Ekitaldixaren hasieran azaldutakuari jarraituta, “presentatzen dogun proiektua ez da egun batetik bestera, beste barik jaixo. Izan be, bada denporatxua Debegesak gizarte-balixuen gaiñeko hausnarketia egitten hasi zala eta prozesuan eskualdeko 100 bat lagunek hartu dabe parte. Egin diran erreflexiño saiuetan erabagi zan, hain zuze be, eskualdian bul-

tzatu biharreko lau balixuak aittatu barri dittugun horretzek eta ez beste batzuk izatia”.

Presentaziñua ekimeneko partaidiak eta Debegesako kidiak diran Elena Alonso eta Esther Zarrabeitiak hasi eben eta haien atzetik, hausnarketa prozesuan jardun dabenak ordezkatzan, Encarni Migales Elgoibarko Herri Eskolako Guraso Elkarteko kidiak eta Gorka Tagle Eibarko Kale Hezitzailliak egiñ eben berba. Proiektuko partaidien txandia amaituta, banka etikuaren gaiñian berba egitteko antolatzailliak gonbidautako Joan Antoni Melé, Triodos Bank-eko zuzendariodiak itxi eban ekitaldixa.

Danon parte-hartzia

Proiektuaren izaera ireki eta parte-hartzaillia behiñ eta barriz azpimarratu eben hizlarixak euren jardunian: “Herrittar guztien parte hartziari garrantzixa ermon nahi detsagu. Azken batian, pertsona guztiak gure balixuen arabera bizi eta jarduten gara eta, hortaz, denok dakagu proiektua aberasteko eta hobetzeko ekarpenak egitteko aukeria eta ahalmena”.

Horrekin batera, proiektua pertsonengan oiñarrituta egonda, aurrerantzian ekimena honezkero martxan dagan 10-15 lagunek osatutako foro batek gidatuko dabela argittu eben. Lantaldian adin, sexu eta arlo profesional ezberdiñetan diharduen gure eskualdeko lagunak batu dittue: bestiak beste, hezkuntza eta industria arloko irakasle-aholkularixa, GKEetan laguntzen daben kidea, gaztelekuetako dinamizatzailliak, Debabarreneko Emakumezkuen Txirrindulari Elkarteko zuzendarixa, Eibarko Antzerki Jardunaldixetako antolatzaillietako bat... denok modu boluntari-xuan eta euren aisialdiari denporia “lapurtzen” proiektuan jarduteko gertu azaldu dira eta, jakiña, eurekin bat egin nahi daben lagun guztiak ongietorrixak izango dira. Eta taldiarekin bat egin barik be, parte hartzeko beste modu batzuk be badagoz, adibidez internet bittartez proiektuari bereziki eskindutako www.gurebalioak.com gunian bertan. Gune horretan proiektuari buruzko informaziño osua eskuratzeko moduan ipi-



Badira hillebete batzuk hainbat lagunek balixuen inguruko hausnarketiari ekin zetsela. Hórretako batzuk ekitaldixan egon ziran: Enkarni Migalesek (lehen ezkerretik) eta Gorka Taglek (hirugarrena) ordezkari modura egiñ eben berba. / SILBIA HERNANDEZ

ñitta dago, intereseko beste hainbat kon-
turekin batera: albistiak, agenda, hurren-
go hitzorduak, bloga, argazkixak, bi-
deuak... Eta, erregular, geroz eta jarrai-
tzaille gehiago daken sare sozialetan,
Facebook eta Twitterren (@gure_balioak)
be bere tartia daka proiektuak.

Proiektu aurkeztu barrixaren barruan De-
babarreneko biztanleri zuzendutako hain-
bat jardura garatzen juango dirala aurre-
ratu eben ekitaldixan. Egingo diranen ar-
tian, garrantzi berezixa daka Gure Balioak
sarixa banatzeko ekitaldixak: azaruaren
10ian banatuko dabe eskualdeko pertsona
edo erakunde baten ibilbidia goraitatzia
helburu dakan sarixa.

Sarixa berez ez da barrixa, Debege-
saz sortu eban eta. Lehelengo edizioño ho-
rretan M^a Tere Gantxegi eibartarrak jaso
eban, gizarte-balixuen inguruan bizitza
osuan zihar egindako lan eskerga eskertu
nahixan. Aurtengo edizioñora bueltauta,
errekonozimendua jasotzeko hautagaixak
presentatzeko epia urriaren 7ra arte zaba-
lik egongo dala gogora ekarri eben proiektu-
tuko arduradunak. Hautagaixak eskualde-
ko edozein gizarte agentek aurkeztu leike,
herrittar, enpresa, alkarte, hezkuntza zeñ
ikerketa zentro edota erakundek. Hauta-
gaixak bete biharreko baldintzen artian,
jarraixan aittatzen diranak dagoz: Deba-
barrenan jaixotakua edota bere ibilbidia
bertan garatutakua izatia, bere balixuen-
gaittiki aipamenen bat merezi daben jar-
dunbidia izatia eta, horrekin batera, es-
kualdiarekin lotura sendua izatia. Sarixa-
ren gaiñeko informazioño zihetza www.gure



Unibersidade Laboraleko aretuak proiektuarekin zeñ hitzaldixan landutako gaixarekin interesatuko asko hartu zittuan. / SILBIA H.

balioak.com webgunian eskuratu leike,
hautagaixa presentatzeko bete biharreko
inpresuekin batera.

Urriaren 7rako kale-ekimenak

Bestalde, proiektua herrittarregana ger-
turtatzeko asmoz, ekimena kalera eteratze-
ko ekintzak egingo dira eskualdeko herrixe-
tan eta horren artian lehelengua datorren
asteko barixakuan, urriaren 7xan, egingo
da Eibarren, 18.00etan hasitta: Toribio
Etxebarria kalia eta Untzaga plazan kale
animazioña, umiendako tallarrak eta ikuski-
zunak preparau dittue.

Bestelako jarduerarik be izango da, bai-
ña: bestiak beste, Debegeesak aldiro anto-

latzen daben 'Ostiralak Debegegan' ekime-
naren barruan, enpresa mundua eta gizar-
te-balixuak uztartzeko hainbat saio presta-
tzeko asmua dake.

Proiektuaren barri emoteko kanpaiña bi-
ribiltzeko, bestalde, Gure Balioak eta Deba-
barrena berbak nabarmentzen dittuan logo-
tipua sortu dabe eta horrekin batera bultza-
tu edo indartu nahi dan gizarte-balixo bako-
txeko irudi bana. Logotipuan zeñ irudixetan
agertzen diran burbuillak Debabarreneko
gizarte-balixuak adierazi nahi dabe.

Gizartia aldatzeko premiña

Elena Alonsok eta Esther Zarrabeitiak
egindako interbenziñuan azpimarratu ebe-

**Ez gaitu izutzen negu hurbilak
udazkeneko beroan.**

**Dakigulako irauten duela
gure harremanak geroan.**

ETXEOAK



JUAN LUIS ULAZIA LANDA

nez, "azkenaldixan gero eta gehixago entzuten dogu gure gizartian balixuak galtzen diharduela, baiña jasaten dihardugun krisiak zeozer positibua badaka, gure balixosistemia aldatzeko dagan premiñia agerixan laga dabela da. Presentatzen dihardugun proiektuarekin gizartia berrindartu nahi dogu. Pentsatzen dogu aldaketia etorriko dala, beti be gutariko bakotxa bere jokabidía, ohiturak, ekimenak eta bestelakuak aldatzen juateko gauza baldin bada".

Elgoibarko Ikastetxeko Gurasuen Elkarteko **Encarni Migalesek** azaldutakuari jarraituta, "ikastetxe bateko gurasuen elkarteko kidia naiz, baiña hamen gagozen guztien modura, gizarteko beste atal askotan be hartzen dot parte: ama, laguna, bihargiña, bezerua eta beste hamaika gauza gehixago be banaiz. Alkartu garan bestieri moduan, sortzen dihardugun gizartiarekin, gure seme-alaberi lagako detsagun gizartia-rena izaerikin arduratuta nago eta kezka horrek bultzatuta erabagi neban proiektuarekin bat egittia".

Gorka Tagle Eibarko Kale Hezitzaillaren berbetan, "gure eskualdiaren historixan eta garapenian garrantzi haundixa izan daben lau gizarte-balixuetan oiñarritzen da proiektu hau, baiña gaur egunian balixuak bardin segitzen dabela pentsatzen dogu? Benetan uste dogu gurasuak seme-alaberi balixo horrek trasmitzen detsazela? Pentsatzen

Martitzenian presentau eben proiektuak herritar guztien parte-hartziari atiak zabaltzen detsaz eta hori da bultzatu nahi dabena

JOAN ANTONI MELÉ (Triodos Bank)

"Ekonomixiaren arduria geure gain hartu bihar dogu"

Proiektuaren presentaziñua aprobetxauta, Joan Antoni Melé "**Dinero y conciencia: A quién sirve mi dinero?**" liburuaren egillia eta Triodos Bank finantza-entidade europarreko zuzendarioridia inbitau eben hitzaldixa emotera. Liburuaren izenburuari jarraituta eskindutako bere berbaldixan gizartiak konzientzia hartzeko dakan premiñiaz eta ekonomixa barri bat ezartzeko oiñarrixen gainian jardun eban, bestiak beste.



- Zeure liburuaren izenburuari helduta, zeñen zerbitzura dago gu guztion dirua?

Gizartian minoritariñuak diran taldien esku dago gehixena, eta espekulaziñuak diruaren zatirik haundixena bidian alperrik galtzia eragitten dau. Geuria sistema ekonomiko espekulatibua, munduan zirkulaziñuan dagan diru guztiaren %95 espekulatibua da, atzian ez dago ezer, eta horrekin batera ekonomixia giza izaerari gailendu jako. Oin dala gitxirarte, enpresa arloko ikasketetan enpresa bat zelan sortu esplikatzen ebenian, inporta eban gauza bakarria enpresia onurak eukitzia zan, beste guztia bigarren mailan geratzen zan. Zorionez, badirudi horri bueltia emoten hasitta daguazela.

- Krisixa dala eta ez dala, azken aldixan gero eta gehixagok diño gure sistema ekonomikuak hondua jo dabela, aldaketia biharrezkua dala, baiña boteria dakanak iñoiz lagako ete dabe gauzak aldatzia?

Sarritan politikueri eta agintarixeri krisixari konponbidia topatzeko eskatzen detsagu, baiña ez dot pentsatzen bidia hori danik, ez dakit benetan horren arduria euren dan. Kanbixuak oiñarrittik etorri bihar dira, gu guztion arduria da gauzak bestelakuak izatia eta, horren aldetik, konzientzia epidemixia sortu bihar dogu gizartian. Izan be, bakotxak bere beldurreri aurre egiñ eta horretxek gairitzen dittuanian, iñork ez daki noraiño aillegau leikian. Eta holako asko alkartzia lortuz gero, ez dago iñor hori geratzeko gauza izango danik. Ekonomixiaren arduria geure gain hartzia da nik egitten doten proposamena.

- Banka etikua oin dala gitxira arte kontzeptu ezezaguna zan gurian. Jendia zeuengana erakartzeko zailtasun haundixak topatzen dittuzue?

Ez horrenbeste, Europarekin konparauta 30 urteko atzerapenarekin aillegau jaku banka etikua, baiña honezkero jendiak badaki zertaz dihardugun eta gero eta gehixago dira euren diruari ahalik eta etekin ekonomiko haundixena etaritzen ahalegindu barrik, bere diruak gizartian sortuko daben etekiñari begiratzen detsenak. Dirua gizartiarantz erabilgarrixa izatiari garrantzixa emoten ikasi bihar dogu, bakarrik geure buruarendako etekiña billatzen jardun barik.

dogu gizartian eraldaketiaren premiñia daguala eta proiektuak gutariko edozeiñ eragille aktibua bihurtzeko aukeria emoten desku. Izan be, herritarrak osatutako foro

bat sortu dogu, heterogeneoa eta nahi dabena erantzat zabalik daguana, beraz, herritarrak guztiak animau nahi ditut modu batian edo bestian proiektuan parte hartzera".



ALBERTO ZANGUITU ANGOITIAren 1. URTEURRENA (2010-IX-27)

"Zure izanaren izarra ez dugu inoiz ahaztuko"
FAMILIA OSOAREN PARTEZ

**Bere aldeko meza ospatuko da urriaren 1ean (zapatuan),
19.00etan hasita, Karmengo parrokan**

Txotx!




SAGARDO
EGUNA

**Urriak 1
zapatua**



goizez eta arratsaldez



Irrintziarekin batera, hasiko dugu bale salmenta eta dastaketa, 12.00etan.

1993n ekin zion ...eta kitto! Euskara Elkarteak Sagardo eguna antolatzeari, baina orain hiru urte geldiunea egin eta gero, guztiz aldatu genuen egun handi hau. Gipuzkoa eta Bizkaian egiten diren beste sagardo egun batzuk ezagututa, **goizez eta arratsaldez** egindako ekitaldiak dira orain urte bi geroztik. Gainera, urtero **berritasunak** sartzea dugu helburu, eta aurten ere horietako bi izango ditugu.

elkarte gastronomikoekin elkarlanean

Herriko hainbat elkarte gastronomikok lagundu ziguten iaz. Egindako lana kontuan izanda, aurten ere **Ondo Nai, Peña Txinbera eta Sasipe**

elkarteen laguntasuna izango dugu. Pintxoak Untzagan bertan egingo dituzte Botellin eta Sasipeko lagunek; gauean, berriz, antolaketan eta beharrean jardundako lagunendako afaria eskainiko digute Peña Txinberan. **Eskerrik asko** guztiei emandako erraztasunengatik.



erakusketa

Sagarraren eta sagardoaren bueltan dagoen mundua Eibarren erakusteko aukera bat izaten da zapatukoa. Hori dela eta, **erakusketa** prestatu dugu aurtengorako. Izan ere, Euskal Herrian sagarrondo asko dago, leku askotan egiten da sagardoa eta horrek bere dinamika eta lan prozesua ditu. Baina, gainera, bazenekien Euskal Herrian dugun sagar kopuru eta mota izugarri handia zela? Guk **hamasei aukeratu ditugu** eta horien berri emango dizuegu erakusketan. Gainera, **sagardoa egiteko** ematen den **prozesua** ere erakutsiko dizuegu.



urteko muztioa duen kupela


Sagarrondoaren loratzea aurten ohikoa baino **lehenago** izan dela azpimarratu digute sagardogileek. Hori dela eta, hamabost egun inguru aurreratu da sagar batzea: *"Itrailaren erdialderako prest egon da"*, esan ziguten sagardogileek. Horri esker, **honezkeroko prest dute muztioa** eta hori ere Eibarren erakustea nahi izan dute Gorenak zigitudun sagardogileek. Eta ondorioz bigarren berritasuna dator: **kupela batean**, Gorenak zigitudun **aurtengo muztioa edateko aukera** izango du nahi duen orok.



OKINDEGIA

URKO





13 sagardotegi Gorenak

- Alorrenea (Astigarraga)
- Altueta (Hernani)
- Barkaiztegi (Donostia)
- Begiristain (Ikaztegieta)
- Egi-Luze (Errenteria)
- Gartziategi (Astigarraga)
- Gastañaga (Andoain)
- Gurutzeta (Astigarraga)
- Isastegi (Tolosa)
- Olaizola (Hernani)
- Sarasola (Asteasu)
- Zapiain (Astigarraga)
- Zelaia (Hernani)

GOIZEZ 12.00etatik 15.30etara **ARRATSALDEZ** 19.00etatik amaitu arte

BI TIKET MOTA IZANGO DIRA:
 6 eurokoa (edalontzia, zapia, pintxoa eta nahi beste sagardo)
 1'5 eurokoa (pintxoa: txorizoa eta gaztaia eta menbriloa)



#sagardoeguna #unegorenak #facebook


BERRITASUNA eta jendearen parte-hartzea areagotzea dugu helburu aurtengo Sagardo Egunean. Eibarren euskara larunbatean nagusi izango da Untzagan eta hori adieraztea nahi dugu; gaur egun hain garrantzitsuak diren sare sozialetan txokoa izatea dugu helburu eta horretako lehiaketa bat eta zozketa bat egingo ditugu. Hori guztia lortzeko asmoarekin, twitter eta Facebook erabiliko ditugu, Sagardo Eguna eta euskarak lekua izan dezan bi sare sozial horietan.

Azkeneko urte bietan Untzagan musika entzuteaz gain, esatari batek girotu du jaialdia, baina aurtun zuek izango zarete protagonista: twitter bitartez egun horretan Untzagan dagoen giroa adieraziko dugu #sagardoeguna eta #unegorenak hitz gakoak erabilita. Gure esatariak jasotzen ditu-

gun mezuak irakurriko ditu. #sagardoegunean bizitako #unegorenak ezagutzea dugu helburu. Animatu eta idatzi zein izan den Untzagara sartu zarenean bizi izan duzuna, zeinekin zauden, gustokoen izan duzun sagardoa, nahi izanez gero, idatzi zure bizitzako une gorena. Bi hitz gako horiek erabilita, burura etotzen zaizuna idatzi eta esatariari lagundu giroa berotzen.

Gertatzen den guztiaren berri @etakitto-k eman beharrea, Untzagan dagoen jendeak ematea dugu helburu, euskal komunitateak jakin dezan #eibar-en ere Sagardo Eguna indartsua dela.

Jasotako tweet guztien artean zozketa bat egingo dugu urriaren 5ean eta datorren asteeko alean, tweet esanguratsu, interesgari edo originalenak kaleratuko ditugu.



Argazki lehiaketa

Bestalde, gaur egun mugikorrek dituzten kamarak, edo-eta etxe gehienetan dagoen argazkiak egiteko ohitura aprobetxatuta, argazki lehiaketa egingo dugu. Iaz ...eta kitto! Euskara Elkartearen facebook orrian zintzilikatu genituen Sagardo Eguneako argazkiak eta arrakasta handia izan zuten. Baina zergatik sartu bakarrik gure argazkiak?

Sagardo egunean parte hartzen duzuen guztiak egin argazkiak eta zintzilikatu sagardo eguneako facebook-eko orrian: facebook.com/sagardoeguna. Jendeak bozkatzeko aukera edukiko du-eta, "atsegin dut" gehien duen argazkiak irabaziko du.

Horretarako epe luzeagoa jarriko dugu; urriaren 11n "atsegin dut" gehien duen argazkia aste horretako alean kaleratuko dugu eta hori izango da sariduna.

Beraz, sari bi izango ditugu aurtengo Sagardo egunean. Opari lote bi prestatu ditugu eta zuen arten banatzea nahi dugu. Baina hori baino gehiago, Untzagan batuko garen guztion artean Eibarren gertatzen dena munduan zabaltzea nahi dugu eta horretarako Facebook eta twitter-ek erreminta ezin hobea eskaintzen digute. Baina hori zuek barik ezin dugu egin. Erakutsi dezagun Eibarko sagardo eguna zer nolakoa den, erakutsi dezagun euskarak Eibarren duen presentzia. Ondo pasatu Sagardo egunean eta adierazi argi eta garbi.



DIRU MAILEGUEN INGURUAN

1.- Bankuak edo beste entitate batek mailegu pertsonal bat eman zidan, ez da hipotekarioa. Ez badut maileguaren epe bat ordaintzen, nire jabetzako etxebizitza bahitu dezake?

Mailegua kontratatzerakoan, gehienetan epe bat ez ordaintzeak maileguaren itxiera ekarriko duela dioen klausula bat sinatzen da. Alegia, kalusula horren arabera, epe bat ordaindu ez, eta beraz mailegua eman duenak (bankua zein beste entitatearen bat) mailegu osoa erreklama dezake, ordaintzeko geratzen den guztia gehi interesak. Erreklamatu eta ordaintzen ez bada, bankuak epai-bidea has dezake. Mailegua notarioaren aurrean sinatu bada, epaitegiko prozesua azkarragoa da ordaindu ez duenaren ondasunak bahitzeko. Notario aurrean ez bada sinatu ere, prozesu judizialaren bitartez iritsi daiteke zordunaren ondasunak enbargatzera. Zordunaren ondasunak bahitzeko orduan, lehenik kontuetan dagoen dirua bahitu behar da eta, nahikoa ez balitz, etxebizitza enbargatzera jo daiteke. Ondoren, soldata. Beraz, posible da mailegu pertsonal batengatik, mailegua etxebizitzaren balorearen aldean txikia izanda ere, etxebizitza bahitzea, eta ondorioz, zordunak etxebizitza galtzea.



Elena Laka
abokatua



3.- Mailegu pertsonal bat kontratatu dut dirua azkar ematen duen enpresa batekin, bueltatu dut maileguan eman zidaten dirua, baina orain interesengaitik beste kopuru handi bat erreklamatzeko didate, ematen du mailegua ez dela sekula bukatzen. Zer egin dezaket?

Dirua azkar ematen duten enprekin mailegu edo kreditu bat kontratatzen denean, ondo begiratu behar da zein interesetan kontratatzen den, eta erreklamazioengatik eta berandutzarengatik gastuak sortzen ote dituen. Hori guztia kontratuan jartzen du. Askotan gertatzen da interesak oso altuak izan ohi direla, %27 ingurukoak, eta erreklamazio gastuak ere neurritz kanpokoak. Behar bada begiratu daiteke prozesu judizial baten bitartez interes tipo hori jeisterik badagoen, gehiegizkoa izateagatik eta, ondorioz, legezkoa den interesa baino ez ordaintzea lortzen da.


2.- Bankuak mailegu hipotekario bat eman zidan, eta etxebizitza hipotekatuta dut. Ez badut mailegua ordaintzen, etxebizitza bankuari utzi eta maileguaz libre gera naiteke?

Mailegu hipotekarioa ez badago ordainduta, bankuak epai-bideari ekiten dio, eta hipoteka hori exekutatu egiten du. Enkantera atera daiteke etxebizitza, hipotekaren eskrituran ezarritako prezioan, kenduta mailegua ordaintzeko falta dena. Lehen enkantean, prezio horren %70a eskaintzen duenak eskura dezake etxebizitza. Enkantean inork ez badu kopuru hori eskaintzen, bankuak etxebizitza eskura dezake bere balorearen %50ean. Eskuratutako balore hori zorra ordaintzeko da, baina mailegu hipotekarioan zor den kopurua enkantean etxebizitzarengatik ateratakoa baino handiagoa bada, zorrik iraun egiten du, eta posible da zorduna etxebizitzarik gabe eta oraindik zorren zati batekin geratzea. Zor horri aurre egin beharko dio, momentu horretan dauzkan ondasunekin eta baita ere etorkizunean eskura ditzakeenekin.

Zuzenbideari buruzko edozein zalantza izanez gero, idatzi erredakzioa@etakitto.com helbidera; hurrengo alean zalantza horiek azaltzen saiatuko gara.

Asier Cuevas Espainiako txapelduna 100 kilometroetan

NAGUSITASUN OSOZ IRABAZI ZUEN ASIER CUEVAS EIBAR-KO ULTRAFONDISTAK ZAPATUAN JOKATUTAKO KANTABRIAKO 100 KILOMETROAK. Horrela, Espainiako txapelketa be-



reganatu zuen gure herriko atletak, sei ordu, 38 minutu eta 56 segundoko denborarekin. Lasterketa 10 kilometroko zirkuitoan jokatu zen, berari hamar itzuli emateko, eta eibartarrak, bat kenduta, beste aurkari guztiak doblatu zituen, bigarrenari 48 minutuko aldea kenduz. Cuevasen lehenengo lasterketa da distantzia horretan; hala ere, munduko bigarren marka lortu du aipatutako 100 kilometroko distantzian.

Entrenatzailea eta jokalaria berri bi Ruibal saskibaloitaldean

MIGUEL ANGEL SÁNCHEZEK AZKEN URTEOTAN GAIZKA HERNÁNDEZEK EGINDAKO LANAREN LEKUKOA HARTUKO DU

urriaren 16an hasiko den denboraldirako Ruibal saskibaloitaldean. Lurrealdeko 3. mailan jardungo dute Sánchezen mutilek, azken denboraldian maila galdu eta gero; 11 talde izango dira multzoan eta galdutako maila lehenbailehen berreskuratzea da eibartarren asmoa. Entrenatzaile berriarekin batera, Ruibalek jokalaria

berri bi izango ditu aurten: udaberriaren gurera etorrira ere, lesio bategatik oso partidu gutxi jokatu zituen Mario Martín pibota izango da taldean eta Anderson Polanco eskolta izango da bigarrena. Azken hau Durangoko Tabirako taldeko behe mailetan trebatutako 19 urteko jokalaria da. Aitor Azurmendi pibota berriro bueltatuko da taldera, denboraldi osoa jokatu barik eman eta gero, eta Mikel Lekunberri izan da taldea laga duen jokalaria bakarra. Guztira hamahiru jokalaria izango ditu taldeak.



Anderson Polanco, Miguel Sánchez eta Mario Martín, Ruibaleko taldekide berriak.

Eibar-Burgos bihar 20.00etan Ipuruan

ORDUTEGI BERRIA PROPOSATU DU EIBAR KE-K ETXEKO PARTIDUETARAKO. Horrela, bihurtik aurrera zapatuetan 20.00etan jokatu dute Ipuruan aritzen diren bakoitzean. Burgos izango dute lehiakide bihar armaginek eta, Errege Kopako lehen kanporaketan gaztelarren aurka lortu bezala, garaipena eskuratu nahi dute Manixen gizonak.

Eibar sailkapenaren erdialdean dago kokatuta, 7 punturekin, joan den astean Arandinarean aurka bana egin ostean. Neurketa alde izan zuten gorriurdinek, baina azken minutuetan alde egin zuten puntu bik Arandinak penaltia sartu eta gero. Burgos, berriz, azkenaurrena da 3 punturekin.

Cuevasi omenaldia


Eibar eta Burgosen arteko neurketa aurretik Asier Cuevas atleta eibartarrak ohorezko sarea egingo du. Cuevasek garaipena lortu zuen joan den asteburuan Kantabriako 100 km-ko XXXII. Nazioarteko Txapelketan, eta talde eibartarrak omendu egin nahi du atleta.



Jordi Evole telebistako aurkezlea hilaren 16an izan zen Eibarren "Carrusel Deportivo" saioarako bisitatuko dituen fobal-zelaiaren artean Ipurukoak ere izango delako.

Pilota neurketa bi gaur Astelenan

DEPORREKO PILOTARIEK ZITA BIKOITZA DAUKATE GAUR ASTELENAN. 20.15-etan Arrillaga edo Lete eta Urionabarrenetxea kadeteak Astigarragako bikotearen aurka arituko dira eta, ostean, Zubizarretak eta Agirrebeñak Alegiako bikotearen aurka jokatu dute.



Unamunzagak min hartu zuen aurreko asteburuan binaka jokatuako partiduan.

Beste pelotari batzuk, ordea, kanpora joango dira euren neurketak jokatzera oraindik zehaztuta ez dauden data eta orduetan. Horrela, Zubizarreta eta Andonegi jubenilak Zumaiaren aurka dira, Agirresarobe eta Erik jubenilak Hernanin, eta Egaña eta Bengoetxea seniorrak Azpeitian.

Aurreko asteburuan Unamunzaga aurrelaria lesionatu egin zen, eskumako eskuko atzamar bat atera baizitzaion; horren ondorioz, Egañak berak bakarrik amaitu behar izan zuen partidua Tolosako bikotearen aurka (normala denez, galtzeko). Santamaria-Narbaiza kadeteek partidu bikaina jokatu eta irabazi egin zieten 22-14 Azpeitiko ordezkariak. Bengoetxeak 9-22 galdu zuen Epelde elgetarrarekin eta Zubizarreta-Agirrebeña nagusi izan ziren Beasainen (18-22).

Gaur egingo zaio omenaldia domekan mendi istripuan bizia galdu zuen Juan Luis Ulaziari

MENDIAN ESKARMENTU HANDIA ZUEN JUAN LUIS ULAZIA BETIRAKO GERATU ZITZAIGUN BERTAN domeka eguerdian frantses Pirinioetako Midi D'Oussau tontoretik metro gutxira. Zorigaitzeko istripua 12.00ak inguruan gertatu zen, Eibarko Klub Deportiboko mendi taldeak antolatutako irteera baten barruan. Hogeiren bat mendizale zihozen Juan Luisekin igoeran, taldekide guztiak mendia igotzeko behar den materialarekin ekipatuta (arnesak, kaskoak, sokak, etab). Istripua tontoretik metro gutxira gertatu zen, behin korridore zailak gaudituta. Azken gailurra, 20 bat metroakoa, zailtasun teknikorik ez duen ibilbidea da, harkaitz onekoa eta helduleku ugariekin, eta domekako baldintza normaletan ez du segurtasun berezirik eskatzen. Istripua estropozu bategatik gertatu zen, zoritxarrez Juan Luis amildegira erori zenean, beste mendizaleekin batera taldean zihozan Merte Agirre bere emaztearengana biratzen zen bitartean.

Bezperan Foratata egin ondoren, Klub

Deportiboak astebururako irteeraren bigarren jardunaldian, Midi d'Ossauren gainean gertatu zen Ulaziaren estropozua, 200 metroko desnibela zuen amildegitik erortzeko. Midiren hego aurpegian gertatutako istripu tokira joandako mendiko suhiltzaileen zerbitzuko partaideek erreskatatu zuten gorpua.

Juan Luis mendizale amorratua eta aditua zen, biziki maite zuen mendia, eta Deporrek egiten zituen irteera guztietan ezinbesteko pertsona garrantzitsua. Gainontzeko taldeko lagun guztien konpainian burutzen zituen ibilbideak, beti ere Merte emaztea alboan zuela.

Istripua Frantzia gertatuta, senitartekoei eta lagunek tramite ugari bete behar izan dituzte mendizalearen errauntsak gurea ekarri baino lehen. Bertara bidaiatzeko aginduaren esperoan zeuden atzo familia-koak eta, "beste arazorik ez bada", gaur arratsaldeko 19.00etan Txaltxa-Zelaiko Auditoriumean egingo den ekitaldi zibilean jasoko du Juan Luis Ulaziak bere jardunarengatik ondo merezita duen omenaldia.




Goitik bizitza hobeto ikusten dela dion lemarri jarraitu dio Klub Deportiboko mendizaleak gazte-gaztetatik.

Pedalaren Eguna jokatu da domekan

EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEAK ANTOLATUTA, PEDALAREN EGUNAREN EDIZIO BERRIA jokatu da domeka goizean, eguerdira arte luzatuko den jardunaldian. Egitarauarekin hasteko, 09.30etan mountain-bike proba ipiniko da martxan, honako ibilbidearekin: Eibar, Apalategi, San Pedro (Elgoibar), San Miguel gaina, Arnoate eta Mendaro. 10.00etan zikloturistak irtengo dira Untzagatik, Ermua, Trabakua gaina, Ondarroa, Deba eta Mendarok osatutako ibilbidea betetzeko. Irteera biek 12.00etan bat egingo dute Mendaron Eibarrera etortzeko.

Gaztetxoendako ekitaldiak 11.30etan hasiko dira, 8 eta 10 urteen arteko neska-mutilek bi itzuliko ibilbidea betetzeko herri erdialdean: T. Etxebarría, Zuloagatarren, Plaza Barria, Calbetón eta Untzaga. Ordu laurden geroago, 10 eta 12 urte artekoen ordua izango da, ibilbide berari hiru itzuli emateko. Hori bai, ez bata ez bestea ez dira lehiatzeko antolatu, parte hartzeko baizik. 12.00etan, ekitaldiekin amaitzeko, gin-kana izango da jokoan 12 urtetik beherako guztientzat.



Berdinketarik gabeko jardunaldia izan zen foball-zaletuan

BIGARREN JARDUNALDIAK EZ ZUEN ZERIKUSIRIK HASIERAKOAN GERTATUTAKOAREKIN eta, horrela, parekotasun gutxiago izan zen neurketetan, partidu guztietan irabazleak eta galtzaileak izanik. Koskor, Azkena Kalton eta Alkideba dira bakarrak partidu biak irabazten eta puntu biko aldea kentzen die dagoeneko Tanke-mans, Living Café, EzDok eta Teknografik taldeei. Asteburuan Durango-Murillo Nazario, Esmorga-Living Café, EzDok-Ekoden eta Tankemans-Azkena Kalton jokatu dira bihar; eta etzi Caserío-Alkideba, Areto-Koskor eta Teknografik-Txoko.

Iradi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

IDOIA BERGARETXE
ESTETIKA ZENTROAN

URRIAN PROMOTIO BEREZIA

GORPUTZ TRATAMENDUAK
10 saio = 300 euro

Estaziño, 1 Tel. 943 20 03 45



Andres Urrutia "Anduriña de Prata" jaso zuen Galiziaren XXVI. Eguna Euskadin egitarauaren barruan. Domeka eguerdiko ekitaldia hasi egunean eta egun horretara arte Euskadiko Irmandade de Centros Galegos-ek antolatutako ekitaldi garrantzitsuenena izan zen eta hor Euskaltzaindiko gaur egungo presidentea "galiziarra izan barik, galizieraren aldeko lana" saritu nahi izan zuten. Zuzenbidean lizentziatua, notario jardun izan du hainbat urtetan. 1997an euskaltzain oso izendatu zuten eta euskaltzainburu da 2004tik hona.

ANDRES URRUTIA, Euskaltzaindiko presidentea:

“Erakunde gutxi mugitzen da gurea bezain beste”

bai, jendeari eskertzen diot ekitaldia jarraitzen egindako ahalegina, eguzkiak ez zuelako barkatu.

- Zein fase dihardu bizitzen Euskaltzaindiak mendeurrena betetzeko azken urteotako ibilbidean? Sasoi betean dago? Kri-siaren eraginik nabaritzen du?

Etapla bat itxi dugulakoan nago, beste berrit bati ekiteko. 1968-70etik gerora euskara batuaren inguruan egindako lanak gaur egungo ibilbideari eman dio pasoa, aldatetako sortuz kanpora begira zein barruko gestioari dagokionez. Barne antolaketan, eskema tradizionaletik kudeaketa moderno batera eman dugu jauzia; eta, kanpora begira, teknologia berrietara egokitzeak gero eta arinago jardutea dakar.

- Zenbat lagun diharduzue Euskaltzaindian beharrean?

Batzordeen lana dago, alde batetik; eta ikerketa-proiektuetan dihardutenak, bestetik.

Berez, 29 akademiko oso ditugu; urgazleak, berrehun lagunetik gora dira; eta ohorezkoak dira beste hamalau. PYME modukoa da gurea, 30etik 40ra behargin dituen enpresa.

- Baduzue epe laburrera begira proiektu berezirik? Zertan derituzue sakontzeko ordua dela?

Hemendik egun gutxira, urrian, ikergunea sortuko dugu Donostian. Horrez aparte, hiztegi-gintzan, amaituta dagoen Orotariko Euskal Hiztegiaren gain, Euskaltzaindiak beste bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: Euskaltzaindiaren Hiztegia eta Hiztegi Batua. Datoren urtean euskaratik euskarakora eta betiko hiztegi pare bat publikazio kaleratuko dugulakoan nago. Hortik aparte, lehenengo aldiz dihardugu euskararen historia soziala aztertzen, korpusaren inguruan buru-belarri sartuta... azken finean, urte guztietan batutako jakeria hori modu batean edo bestean -zainduta, hori bai- gizarteratzeko asmotan.

- Zer moduz domekako ekitaldia? Esanahi berezia izan du zuretzat? Ezustekoa hartu zenuen?

Ezustea izan zen: eurei ere esan nien, nik baino meritu handiagorik izango zutela-eta saritzeko. Dena dela, ilusioz saritu naute eta onartzen dut sasoi batean galizieratik euskarara itzulitako liburuekin egindako lana. Bizierperiarentzako ere badu bere lotura: Ondarroan notario jardun nuen urteetan harreman berezia izan bainuen Galiziako emigrazioarekin, bertakoak familian ere baditugu... Hori

BATZOKI jatetxea


EGUNEKO MENUA:
14'5 euro (BEZ barne)

Ego Gain, 1 - behea

ASTEBURUKO MENUA:
20 euro (BEZ barne)

MENU DEGUSTAZIOA:
35 euro (BEZ barne)

TALDEENDAKO MENUAK



RAZIOAK BARRAN

Tfnoa. 943 25 72 80
www.baibatzoekia.com

Entsaladak

Legatza frijitua 9 euro

Urdaiazpiko iberikoa . 8 euro

Sepia plantxan 6 euro

Olagarroat 6 euro

Filetea 9 euro



ANTOLATZAILEAK:

- J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte
- ...eta kitto! Euskara Elkarte

urriak 16

AUTOBUS zerbitzua:

IRTEERA 08.30^{etan}, Ego-Gainetik
BUELTA 18.30^{etan}, Tafallatik

11
euro

Sakontzeari dagokionez, hiru arlo edo esparru nabarmenduko nituzke: Gramatikan egin beharrekoa, Hiztegiaren urrats sendoekin dihardugu Hiztegi ahalik eta duinena egiteko bidean eta, azkenik, korpusen inguruan egin beharreko guztia dago, jendearen eskuera modu eraginkorrean ailegatzeko.

- Agintean gobernu bat edo bestea egoteak, eta horrek markatzen duen politikak, eragina du zuen lanean?



Domekan "Anduriña de Prata" jaso zuen Andres Urrutiak Galiziaren Eguna Euskadiren ekitaldien barruan. / LEIRE ITURBE

Euskaltzaindiak, zeozer lortu badu beti, hori independentea izatea izan da. Euskal Herria bere osotasunean hartu du, pentsamendu eta jatorri desberdinetako jendea bilduz. Jarrera politikoetatik guztiz aldentuta, agintzen duena bat edo bestea izan, erakundeekin harreman instituzionala izaten ahalegindu da. Bartzertu barik euskalgintzan diharduten beste eragileekin dugun harremana.

- Aurrekoaren harira, zelan ikusten duzu B ereduan ikasitakoek perfil linguistikoa akreditatu behar ez izatea eta antzerako neurriak?

Guztiondako kafearen kutsua ikusten diot neurriari. Argi dago bestelako ikasketetan ere ez dela halakorik eskatzen eta tituluarekin ikasketa horiek menderatuztat ematen direla. Argi ez dagoena da ikasketa horiek amaitzen dituenak gaitasun mailarik duen. Horregatik diot: zenbat eta paper gutxiago hobea, baina atzera egin barik. Gaitasun maila ziurtatu beharra dago.

- Euskarak zelako osasuna du? Tratamendu bereziren beharrik badu?

Horrela galdetuta, gaixoaren irudia datorkigu burura eta ez naiz ni horren aldekoa. Pazientearen gorputzari, dena dela, atal batzuetan osasun bikaina nabaritzen zaio, beste batzuetan berrosaketa lana egitea komeni da eta badira arreta berezia merezi duten arloak: etxeko transmisioarena, kasu. Sendagilearen papera berreskuratuz, egoera egonkorrean dagoela esango nuke.

- Idatzizkoaren mesedetan, ahozko transmisioa deskuidatu dugula zenioen aurreko elkarrizketa batean. Baita biologia egin behar zela, arkeologia egin beharrean...

Nire praktikatik ateratako ondorioa besterik ez da. Bizkaiko kostaldeko herrietan jardun izan dut lanean eta Ondarroan eta Lekeition euskararen presentzia haizearen edo uraren maila berean ematen da: naturalki, berez. Ez da hori beste leku askotan ikusi dezakeguna, herri batzuetan zaila baita euskaraz bizitzea. Unibertsitatean, mundu formalean... badao aurrera; baina arrantza edo baserri munduan atzera egin dugu, hitz asko galdu dira, gaur egungo bertako seme-alabek ere ezagutzen ez dituztenak.


- Gizartearekin zer nolako lotura duzue? Pixka bat aparte zaudete edo gizartearen parte ikusten duzue zuon burua?

Hori beste topikoetako bat da. Erakunde gutxi izango dira herri batetik bestera gu bezainbeste mugitzen direnak Euskal herri osoan. Esaterako, Nafarroa Oinez jaiarekin bat eginez, irailaren 30ean Tafallan hainbat ekitaldi egingo ditugu, tartean osoko batzarra goizean. Hori bai, bilerak gauza serioa dira eta ez dugu koadrila gisa jardungo... bertatik irten arte behintzat!

- Jendeak egiten dizuen kontsulta kopurua igo ala jaitsi egin da?

Egoera nahiko egonkorrean gaudela esango nuke. Toponimia eta Onomastikaren inguruko galdera asko jasotzen ditugu. Euskal Hiztegiaren bigarren edizioa ere jendearen esku dago eta Jagonet zerbitzua ere bizkortzen dihardugu hamar urte bete dituen honetan. Gure webgunean Hiztegi Batuaren azken bertsioa dago kontsultagai, orain arte Akademiak arautu dituen hitz guztiak jasotzen dituen.

Bi urte daramatza Kordoban bizitzen Oier Pesquera eibartarrak. Topalekuan erakusketa eskainiko du gaur hasita (19.00etan) urriaren 9ra arte. Urteetan zehar egindako lanak egongo dira erakusgai, lan grafikoak batez ere. Bere herrian egitean, erakusketa berezia izango dela aitortzen du Oierrek, eta ikusleei gustatzea espero du.



OIER PESQUERA, artista:

"Arte munduan aurrera egin nahi dut"

- Nolakoa izango da Topalekuan eskainiko duzun erakusketa?

Lan grafikoa da erakutsiko dudana batik bat, grabatuak eta collagea. Ez daukat guztiz erabakita oraindik, zeramika apur bat ere sartu dezaket. Erakustokia ezagutzen dut, baina obren ostean ez dakit zelan geratu den. Kordobatik autoan noa eta baliteke lanak soberan eramatea. Ikusiko dut nola etortzen den bat dena.

- Eibarren zure obra erakustek zer esan nahi du zuretzat?

Berezia da. Kordoban urte bi daramatzat, baina Eibarren ditut sustraiak. Nire ardura, hala ere, erakusketa ondo geratzea da. Topalekuan erakusketa asko ikusi ditut eta toki polita dela deritzot.

- Zure lana Eibarren erakusten duzun lehen aldia da?

Bakarrik bai. Talde moduan egin izan dut Portalean Debako Arte Eskolarekin, baina honakoa da bakarrik erakusten dudana lehen aldia.

- Zer da erakusketan islatu nahi duzuna?

Ez dago gai orokorrik. Errekurtso grafikoetatik abiatuz azterketa formalak egiten saiatu naiz eta obra bat osatzen.


- Zure obra egiteko hainbat teknika erabili dituzula diozu. Zerekin aritzen zara erasoan?

Arlo grafikoan erosoago sentitzen naiz, grabatuekin. Orain arte formatu txikian aritu naiz, baina handiekin hasi naiz orain. Formatu txikia zailagoa da, baina beragan kontrol gehiago daukazu. Formatu handiarekin, collagea eta beste euskarriekin, libreago zara modu batean esatearren, izan ere, grabatuarekin zailagoa da atzera egin eta zuzentzea. Ez da gauza inprobisatua guztiz, bilatua delako eta funtzionatu egin behar duelako.

- Arte munduan diharduzu lanean ala afizio moduan hartzen duzu?

Beti izan dut arte munduan aritzeko asmoa, baina espazio faltagatik, garestia izateagatik eta hortaz bizitzea zaila izateagatik, ez da horrela gertatu. Orain, hala ere, badaukat proiektu bat aurrera ateratzeko asmoa eta arte munduan aurrera egiteko helburua, helzen naizen lekura arte. Beste lan batzuk izan ditut eta ez naiz gustora sentitu. Abentura bat izango da bere zentzu osoan, baina ikusteke dago zer gertatuko den. Momentuz, inguruan jaso dudana erantzuna ona izan da. Ondoen egiten dakidan gauza da eta gutxienez saiatu behar naizela pentsatzen dut. Urteetan zehar egindako lan serioa daukat atzean.

Juan Luis Agirre organojoaleak Sostoaren eta Orbegozo eta Urkizu musikarien laguntza izan zuen.




Helmholtz kontzertu hunkigarria

PEDRO ZELAIA KULTUR ELKARTEAK HELMHOLTZ ORGANAREN SORRERAREN 50. URTEURRENA OSPATZEKO bariakuan Coliseoak hartu zuen kontzertua benetan arrakastatsua izan zen eta bertaratutakoak pozarren irten ziren emanaldirik, ikusizunean parte hartu zutenek eskainitako egitaraua benetan anitza izan baitzen. Juan Luis Agirre organojoaleak Sostoa abesbatzaren eta Iñaki Orbegozo eta Ainhoa Urkizu musikarien laguntza izan zuen Chicagon egindako enereduari jarraituta, Eibarren fabrikatze-ko gauza izan ziren organoari omenaldia eskaintzeko antolatutako kontzertu berezian.


Sanandresetarako kartel lehiaketa

UDALEKO EUSKARA ETA KULTURA BATZORDEAK SANANDRESETARAKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA antolatuta du. Gaia norberaren aukerakoa izango da eta lanetan "Sanandresak 2011 Eibarren" idatzita agertu beharko da, 70x50 zentimetroko euskarri gogor baten gainean (formatu digitalizatuan, JPG formatuan, 300 ppp-ko be-reizmenarekin 70x50 zentimetroko proportzioarekin). Kartelak lemapean aurkeztuko dira eta egilearen datuak, berriz, erantsitako kartazal itxian eraman beharko dira. Kartelak urriaren 20ko arratsaldeko 19.30ak baino lehen Pegoran (udaletxean) laga beharko dira. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du eta epaimahaia 100 euroko akzesita emateko aukera izango du. Umeek aurkeztutako lanen artean sari berezi bi banatuko dituzte (dirurik ez).



Alberto Cortéz Coliseoan

GAUR ILUNTZEAN, 20.30-ETAN HASIKO DA ALBERTO CORTEZ MUSIKARIAREN KONTZERTUA COLISEO ANTZOKIAN, Jai Productions enpresak antolatutako emanaldian. 1940an Argentinan jaiotako artistak azken urteotan batez ere Hegoamerikan jardun du beharrean eta, horregatik, luzaroan ez da bere musika zuzenean entzuteko aukerarik izan gure inguruan. Bartzelonan eta Cádizen abestu behar zuela aprobeztatuta, Jai Productions-ek ez dute Cortez Eibarreraino ekartzeko aukera aparta galdu nahi izan. Sarrerak al-



Alberto Cortéz bere onena emateko asmoz bueltatuko da Euskal Herrira.

dez aurretik salgai ipini dituzte Birjiñape, Portalea, Trinke, Arno, Terraza eta Caserio tabernetan (20 eurotan) eta

gaur bertan, emanaldia hasi aurretik Coliseoko leihatilan ere erosteko moduan egongo dira, 25 eurotan.

Nerea Elustondo nagusi Coliseoko saioan

LEGAZPIKO BERTSOLARIA GARAILA GARBIA IZAN ZEN GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO FINAL-ZORTZIRENETAKO HIRUGARREN SAIOAN. 516 puntu bildu zituen, Iñaki Gurrutxaga bigarrenari dezenteko tarte aterata, azken honek 495 puntu eta erdi lortu baitzuten. Besteen puntuazioa honakoa izan zen: Rezolak 491, Zubiak 464'5, Labaienek 449 eta Osak 442'5.



300 lagun inguru batu ziren saiora eta indartsu hasi ziren sei bertsolariak lehen agurretatik: Coliseoko eszenatokiaren izenarekin lotutako "alea jacta est" bota zuenarekin batera, izan ziren gladiadore konplexuz plazaratu eta Kristorenak egitera zetorrela esan zutenak. Kartzelako gaia honakoa izan zuten: "Askotan pentsatu izan duzu: noiz hilko ote da?".



laburrak

MARKOS UNTZETA

Euskara-Kultura batzordeak jakitera eman duenez, zapatuan (urriak 1) Markos Untzetak eman behar zuen kontzertua bertan behera laga behar izan dute, taldeko musikarietako bat gaixorik dagoelako.

KONTZERTUA KOSKORREN

Gaur gauean, 23.00etan "Una noche sin Sabina" (Arrasate-Gasteiz) taldeak kontzertua emango du Koskor tabernan. Taldeak Joaquin Sabinaren abestien bertsioak jotzen ditu. Sarrera librea da.

ARGAZKIGINTZA DIGITALA

Argazkigintza Digitalean lehen urratsak ikasteko kurtsoa hasiko da urrian Portalean, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik. Jose Valderreyk emango duen ikastaroa urriaren 18, 20, 24, 27 eta 31n eta azaroaren 3, 8, 10, 15, 17, 22, 24 eta 29an izango da, 19.00etatik 21.30etara. Informazio gehiagorako edo izena emateko Pegorara jo behar da, urriaren 3tik 10era.

CRISTINA AZPIRI

Eibarko artistak egunotan erakusketa dauka martxan Deban, hango Turismo Bulegoan. Domekara arte ikusgai egongo den erakusketan olioak, akrilikoak, linoleo monotipoak eta beste hainbat batu ditu Cristina Azpirik.

Juan Luis Ulazia Landa

(BELEN GURE LANKIDEAREN NEBA)

Irailaren 25ean hil zen, 59 urterekin

Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi diegu haren senide eta lagunei.

...eta kitto! Euskara Elkarteak

Galizia protagonista asteburuan

ASTEURU BETE-BETEA IZAN ZEN AURREKOA GUREAN, EUSKADIKO GALIZIA EGUNAREN 26. EDIZIOARI ESKER. Eguen arratsaldean abiatu zen Eibarrek lehenengoz hartu duen Galiziako Etxeen topaketa berezia eta domeka iluntzera bitartean Untzagako plaza biak eta Txaltxa Zelaiako zati bat Euskadin dauden Galiziako 12 Etxeek bete zituzten, hango gastronomia, musika, artisautza, dantza eta bestelakoekin. Eguraldia lagun, antolatutako guztiak benetan arrakastatsuak gertatu ziren eta eibartarrak ez ezik, Euskal Herriko beste toki batzuetatik

jaiarekin bat egitera etorritako jende ugari hartu zuen parte asteburuan zehar egin ziren jardueretan. Zapatu zein domekan dozena bat autobus etorri zen gurera, jaiaren parte hartzerako etorritakoak ekartzera. Domeka eguerdian, bestalde, ekitaldi instituzionala hartu zuen Untzagak: Miguel de los Toyos alkateak, Iñaki Arriola sailburuak eta Galiziako Xuntako Beatriz Mayok erkidego bietako gobernuak ordezkatu zituzten eta, horiekin batera, Pilar Hernández Euskadiko Galiziako Etxeen Irmandadeko burua, Amílcar Dos Santos As Burgas Eibarko Galiziako Etxeko presidentea




Eguzkiak gogotik jo zuen Untzagan domeka eguerdiko ekitaldietan. / LEIRE ITURBE

eta Xoxé Antón Vilaboa Gipuzkoako Etxe Erregionalen Federazioko presidentea izan ziren. Ekitaldian errekonozimendu berezia egin zieten Andres Urrutia Euskaltzaindiako presidenteari (Anduriña de Prata), Galiziako kultura hedatzen

egindako beharra eskertu nahian eta Ramón Pampín Arabako Galiziako Etxeko presidenteari (Euskadiko Galiziako Etxeen Irmandadeko Urrezko intsignia). Pregoia eguenean Coliseoan abestu zuen Rosa Cedrón-ek irakurri zuen.

“Egipto. Begirada erromantikoa” Irungo Oiasson

EKAINAZ GEROZTIK ETA AZARAREN 20RA BITARTEAN, IRUNGO OIASO MUSEO ERROMATARREAN orain arte oso harrera ona izaten diharduen “Egipto. Begirada erromantikoa” izenburuko erakusketa bisitatzeko aukera izango da. Euskal Herriaren Egiptori buruz dauden bilduma pribatu bakarrik, Santiago Entrena eibartarrarena eta Jose M^a Ortuondorena, lehenengo aldiz elkarrekin ikusteko aukera paregabea eskaintzen du erakusketak eta bilduma pribatuetako piezekin batera, gainera, Bilboko Museo Etnografikoko (Olabarria Jauregia bilduma) zein Donostiako San Telmo Museoko (Antonio Bernal O'Really bilduma) hainbat lan ere ikusteko moduan ipini dituzte. Denera 100 bat pieza bildu dituzte erakusketan, sasoi ezber-



dinetakoak. Bestalde, erakusketara doazenei bisita erraztearren, gai konkretu batzuen arabera sailkatu eta antolatu dituzte piezak. Umeen-tzat bereziki prestatutako hainbat jarduerarekin laguntzen zaio, gainera, bertan ikusten dutenaren inguruko edukiak modu errazago eta atseginoan barneratzeko aukera izan dezaten. Egiptori buruzko erakusketara sartzeara doan da.



Abbadie jauregia ezagutzera joango dira urriaren 5ean, eguaztenean.

Nagusiak ere eskolara bueltan

DEBABARENKO ESPERIENTZIA ESKOLAREN 8. PROMOZIOAK URRIAREN 18-AN HASIKO DU IKASTURTE BERRIA. Aurten klaseak emateko egoitzan aldaketa izango da eta, Armeria Eskolan beharrezan, U.G.T. fundazioaren egoitzan, Formakuntza eta Gizarte Ikerketa Institutuaren lokaletan emango dituzte eskolak. Izena emateko epea urriaren 14ra arte zabalik egongo dela gogorarazi dute arduradunek eta interesatuek eskualdeko edozein udaletxera jo dezakete informazio bila edo, nahiago izanez gero, 695788936 telefono zenbakira deitu.

Bestalde, Ikasten Esperientzia Eskolako Ikasle Ohien elkarteak ikasturte berrirako programazioari ekingo dio urriaren 5ean, Hendaia Abbadi jauregia ezagutzera joateko antolatutako irteerarekin. Trenez

joango dira Eibartik Donostiara (Ardantzatik 09.07etan eta Estaziñotik 09.13etan irtenda). Donostiatik Hendaia-ko tren 10.45etan hartuko dute.




Kilometroak-erako autobusak Toribio Etxebarriatik irtengo dira


...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK AUTOBUSAK ANTOLATU DITU datorren urriaren 2-an Kilometroak-era joateko, Azpeitiara. Honezkerok bete diren autobus kopurua dela eta, irteera lekuak aldaketa izango du: autobusak Toribio Etxebarria kaletik irtengo dira eta ez Ego Gaietik. Oraindik ere salgai daude autobuserako sarrerak, 7 eurotan, ...eta kitto! Euskara Elkartearen bulegoan. Autobusa 10.00etan irtengo da Toribio Etxebarria kaletik eta 19.00etan bueltatuko da Azpeitiatik.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunren bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, OIER. Aitxixa, amama, Jon eta Mikelen partez.



Zorionak, MIKEL, urriaren 2xan urte bi egingo dozux-eta. Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta famelixaren partez.



Zorionak, MALEN, atzo zortzi urte bete zenduazelako. Patxo pillua maitte zaittugun guztion partez.




Zorionak, MIKEL Lapeyra Ibarra, astelehenian urtebete egin zendualako. Muxu haundi bat, lazтана, etxekuen partez.




Zorionak!! Etxeko printzesari, maittasunez, 18 urte betetzian. Muxu haundi bat aitta, ama, Aliosha eta Truck-en partez.




Zorionak, ARATZ Amillategi Alberdi, domekan urtia beteko dozulako. Famelixaren partez.




Ongi etorri, UDANE, eta zorionak aitta Borja eta ama Mireni.



Zorionak, DANEL Portu Uribeetxeberria, astelehenian lau urte egingo dozux-eta. Zure famelixaren partetik.



Zorionak, NAIA, domekan sei urte beteko dozux-eta. Muxu haundi bat ARIANE, aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, GORKA (irailaren 18xan izan zan zure eguna) eta LUIS MARI (bixar izango da), zuen urtebetetzietan. Oier eta amatxoren partez.

zinea Coliseoan



"Urteberri on, Amona!"

Zuzendaria: Telmo Esnal
Aktoreak: Nagore Aranburu, Pedro Otaegi, Kontxu Odriozola, Joxean Bengoetxea

30ean: 22.30
1ean: 17.00, 19.45, 22.30
2an: 17.00, 20.00
3an: 20.30



"Super 8"

Zuzendaria: J.J. Abrams
Aktoreak: Elle Fanning, Gabriel Basso, Joel Courtney, Kyle Chandler

30ean: 22.30
1ean: 17.00, 19.45, 22.30
2an: 17.00, 20.00
3an: 20.30




"Johnny English Returns"

Zuzendaria: Paul Anderson
Aktoreak: Rowan Atkinson, Gillian Anderson, Dominic West, Rosamund Pike

1ean: 17.00, 19.45, 22.30
2an: 17.00, 20.00
3an: 20.30



Zorionak, ANDER eta IBONE, eguaztenian zazpi urte beteko dozux-eta. Muxu bat etxekuen partez.



Zorionak, ARATZ eta RIKI-ri!!!! Urriaren 2xan zuon eguna da-eta! Patxo haundi-haundi bat amatxoren partez.

HILDAKOAK

- Dominga Kareaga Fernandino. 94 urte. 2011-IX-16.
- Pablo Nieto Higuera. 69 urte. 2011-IX-21.
- Miguel De las Heras Fernández. 66 urte. 2011-IX-22.
- Alicia Muñoz Zabaleta. 85 urte. 2011-IX-23.
- Ignacio Goenaga Galarraga. 89 urte. 2011-IX-23.
- Bruna Larreategi Iraola. 91 urte. 2011-IX-24.
- Esther Uruñuela Espiga. 76 urte. 2011-IX-24.
- Virginia Díaz Alvarez. 86 urte. 2011-IX-25.
- Juan Luis Ulazia Landa. 59 urte. 2011-IX-25.
- Gotzon Mtnez Lejarza De la Hera. 82 urte. 2011-IX-26.
- Manuela Sánchez Marcos. 79 urte. 2011-IX-28.

JAIOTAKOAK

- Kepa Alberdi Prieto. 2011-IX-16.
- Jone Gerrikagoitia Otxandiano. 2011-IX-21.
- Alain Conde Blanco. 2011-IX-22.
- Nerea Arnaiz Bedoya. 2011-IX-23.

horoskopoa

ARIES

Zure esku dagoena egingo duzu, zure nahia betetzeko nahikoa izan ez arren. Hala ere, poztu: gauza asko egin ditzakezula erakutsi duzu.

TAURUS

Istorio bitxia pasako duzu hurrengo egunotan. Liburu baten protagonista emango duzu, abenturaz beteriko istorioak biziko dituzu.

GEMINI

Umiltasuna izatea eta aurreiritziak bazterzea komeni zaizu. Aurrean duzunarekin horrela jokatu ezean, konturatu eta damutuko zara.

CANCER

Neke handia nabaritu ere, aurrera egingo duzu zure betebeharrekin. Ondoren atsedenerako aukera izango duzunez, ez kezkatu horregatik.

LEO

Zalantzek betetzen dute zure burua. Ez da gutxiagorako, erabaki handia hartu behar baituzu. Ez zaituz gehiegi zoratu: ez da hainbestearinoko.

VIRGO

Lepoko mina... zergatik izango ote da? Beno, masaje on bat eskatzeko aitzakia ezin hobea izango duzu. Aprobetxa ezazu! Baietz errepikatu!

LIBRA

Dena batera ezin baduzu egin, hartu lasai, lana banatu, eta poliki-poliki egiten saiatu. Hobe horrela dena bizkor eta gaizki egitea baino.

SCORPIUS

Udazkena iritsi da eta horrekin hain gorroto duzun gripea. Ea aurten sahiesten duzun eta ez zaren gaixotzen. Gehiago zaindu zaitz.

SAGITTARIUS

Bizkor pasako zaizu astea: hara eta hona, konturatzen zarenerako asteburuan berriz ere. Aste bikaina pasa duzula konturatuko zara.

CAPRICORNIUS

Gauza berriak bilatu behar dituzu, erronka berriak. Animatuko zaituen zerbait behar duzu, motibazio bat; behera etorriko zara bestela.

AQUARIUS

Aste ez-ohikoa honakoa. Betiko errutinatik kanpo, gauza berriak gertatuko zaizkizu, harrigarriak. Ea nola egiten diozun aurre!

PISCIS

Lagunek zenbat balio duten konturatuko zara. Une txarretan hor egongo dira, duten guztia ematen zu ondo egoteko. Eskertuko duzu.

Barixakua 30

OMENALDIA

19.00.- Juan Luis Ulazia mendizaleari omenaldia. Txaltxa-Zelaiko auditorioan.

KONTZERTUA

20.30.- Alberto Cortez-en kontzertua. Sarrera 20 euro aldez aurretik, 25 euro lehiatilan. Coliseoan.

KONTZERTUA

23.00.- "Una noche sin Sabina" (Gasteiz-Arrasate) taldearen kontzertua. Koskor tabernan.

ROCK GAUAK

00.00.- Rock gava D.J. Kobirekin. Karrika tabernan.

Zapatua 1

KOMENTATUTAKO DASTAKETA

11.00.- Gorenak proiektuaren aurkezpena, Egoitz Zapiainen eskutik. Iruki sagardotegian.

SAGARDO EGUNA

12.00/15.30 eta 19.00.- 13 sagardotegitik ekarritako sagardoa, pintxoak, musika... Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkarte. Untzagan.

ikastaroak

– Artearen Historia.

Antolatzailea: Pagatxa emakumeen elkarte. Irakaslea: Satur Peña. Hasiera: San Andres elizan, urriaren 5ean, 16.00etatik 17.30etara. Izen-ematea eta informazioa: 943206735 / 687368907.

– Irakurketa-taldea.

Antolatzailea: Pagatxa emakumeen elkarte. Irakaslea: Jone Arroitauregi. Noiz: Urriaren 19an, 16.00etatik 17.30etara Portalean. Izen-ematea eta informazioa: 943206735 / 687368907.

– Argazkigintza Digitala: Lehen Urratsak.

Noiz eta non: Urriak 18, 20, 24, 27 eta 31; azaroak 3, 8, 10, 15, 17, 22, 24 eta 29. Portalean (19.00etatik 21.30etara). Informazioa eta izen-ematea: Urriaren 3tik 10era, Pegoran.

– Sektore turistikoarentzako ikastaroak.

Noiz eta non: Irailak 19, urriak 17, azaroak 21 eta abenduak 12, 09.00etatik 13.00era Debegesan. Informazioa eta izen-ematea: 943820110 (Beatriz) edo beaescobar@debegesa.com helbidean.

– Esperientzia Eskola.

Noiz: Urriaren 18tik ekainaren 7ra arte, martitzen, eguazten eta eguenetan, 09.30etatik 12.30etara. Izen-ematea eta informazioa: Urriaren 14ra arte, Debabarreneko udaletxeetan (200 euro). 626773676 telefonoan.

– Erretzeari lagatzeko ikastaroa.

Noiz: Azaroak 7, 14, 21 eta 28; abenduak 12 eta 19; azaroak 3 eta 17; urtarrilak 9; eta martxoak 26 (gogoratzeko saioa), 18.30etatik 19.30etara, Portalean (ikastaro gelan). Izen-ematea: Urriaren 16tik 20ra, Pegoran (30 euro Eibarren errolatutakoek, 50 euro besteeke).

BARRENAKO JAIAK

12.30.- Paella lehiaketaren hasiera.
14.00.- Paellen aurkezpena epai-mahaiaren aurrean.
14.30.- Sari banaketa eta herri-bazkaria.
16.00.- Umeentzako jolasak. Gasolindegia aurreko parkean.
14.30.- Il. Mus Txapelketa. Gure Kaiola eta Vinagre tabernetan.

AGINAGAKO JAIAK

17.00.- Briska txapelketa.
17.30.- Umeendako jolasak: pelota partiduak, diskoteka eta txokolate-jana.
21.00.- Lagunarteko afaria.
23.00.- Erromeria, Kupela taldearekin. Goizaldean, txokolate-jana. Aginaga auzoan.

AGINAGAKO JAIAK

11.00.- Meza nagusia, Goruntz abesbatzarekin.
11.45.- Zerutxu dantza taldearen emanaldia.
12.30.- Piskolabisa eta Gorritiren abereak.
14.30.- Paella-jana herrikoia.
17.00.- Idi probak. Pisu librean bustarri bat eta kintopeko bustarri bi. Aginaga auzoan.

Martitzena 4


HITZALDIA

18.00.- "Trio Calaveras" Mexikoko taldeari buruzko multimedia-erakusketa, Saturnino Sáez de Ibarrenaren eskutik. Aula DV-k babestua. Portalean.

Eguaztena 5

ZINE-FORUMA

18.00.- Zine-foruma, AFAGik (Gipuzkoako Alzheimer Gaixoen Senitartekoen Elkarteak) antolatuta: "Cuidadores" (Zuz: Oscar Tejedor). Sarrera: Euro bi. Coliseoan.



erakusketak

– Irailaren 30era arte

OLOT-EKO ARGAZKILARITZA ELKARTEkoen argazki erakusketa. *Depor tabernan.*

JOSE MARI SASIETAren "Paisajes de luz" argazki erakusketa. *El Ambigü kafetegian.*

FEDERICO CUENCAren argazki erakusketa. *Karrika tabernan.*

– Urriaren 9ra arte

OIER PESQUERA artista plastikoaren lanen erakusketa. *Topalekuan.*

– Urriaren 16ra arte

"MUGARTEA" Ermuko Pintura Taldekoen erakusketa. *Portalean.*

– Azaroaren 23ra arte

"MEDUELELAVIDA" RUBENen erakusketa berezia. *Karrika tabernan.*

bekak

– **X. Juan San Martin Beka 2011.**

Ikerketa esparrua: Mendizaletasuna. Informazioa eta eskaerak aurkeztea: Urriaren 11ra arte, Pegoran.

lehiaketak

– **Indalezio Ojanguren XXIII. Argazki Lehiaketa.**

Lanak aurkeztea eta informazioa: Urriaren 7ra arte, Pegoran.

– **Asier Errasti Eibarko XI. Laburmetraia Jaialdia.**

Lanak aurkeztea eta informazioa: Urriaren 7ra arte, Pegoran.

– **"Sanandresak 2011 Eibarren" Kartel Lehiaketa.**

Lanak aurkeztea eta informazioa: Urriaren 20ra arte, Pegoran.

farmaziak

30, barixakua

EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)

GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)

1, zapatua

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

2, domeka

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

3, astelehena

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

4, martitzena

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

5, eguaztena

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

6, eguena

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

7, barixakua

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

telefono jakingarriak

SOS deiak112

Pegora010

Udaletxea943 70 84 00

Portalea943 70 84 39

Udaltzaingoa.....943 20 15 25

Mankomunitatea943 70 07 99

Debegesa.....943 82 01 10

KIUB943 20 38 43

Epaitegia943 03 34 00

Iberdrola901 20 20 20

Naturgas902 12 34 56

DYA Larrialdiak.943 46 46 22

Gurutze Gorria..943 22 22 22

Mendaro osp.....943 03 28 00

Anbulategia.....943 03 25 00

Torrekuia.....943 03 26 50

Errepideak.....902 11 20 88

Ertzaintza943 53 17 00

Eusko Tren902 54 32 10

Pesa902 10 12 10

Taxiak.....943 20 30 71

.....943 20 13 25

Alkohol.Anon. ..629 14 18 74

Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

	2	3		6			8
4	9		1	8			
		2					1
							7
	1	5			4	8	
7					2		
	4						
			2	8		5	6
8			7		1	4	

DENBORAPASAK

8	1	7	6	9	2	5	3	4
4	6	3	1	8	7	9	6	2
9	6	2	5	3	4	1	8	7
2	9	8	4	7	6	3	5	1
7	4	6	9	1	3	6	2	8
1	3	8	6	2	5	4	7	9
5	7	4	2	6	1	8	9	3
3	6	1	7	5	9	2	4	8
6	2	9	3	4	8	7	1	5

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Amañako dorreetan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukalde, komun handia, balkoi bi, trasteroa eta garajea. Tel. 626-438733 eta 679-342893.

1.2. Errentan

– Amañan pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Eguzkitsua. Tel. 646-484230.

– Logela biko pisua behar da alokairuan Bista Eder inguruan. Tel. 688-618959.

– Logela biko pisua behar da alokairuan Urkizu inguruan. Tel. 638-047847.

– Familia batek pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 669-966611.

– Eibarko bikote batek egoera onean dagoen pisua nahi du alokairuan. Tel. 670-428966.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 693-950032.

– Iparragirre kalean pisua alokagai. Logela bi, egongela, sukalde eta komuna. Tel. 618-086191.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Urkizu inguruan garajea alokagai. Marraduna. Tel. 639-632172 eta 943-127104.

– Amañan lokala alokatzen da. 180 m². Argitsua eta autoendako sarrera onarekin. Tel. 605-771570.

– Garajea alokagai (marra) San Andres pasealekuan. Tel. 617-688311. Elena.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 619-445548.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 636-517025.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 669-994669.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 691-743549.

– Emakumea eskaintzen da etxeak edo pegorak garbitzeko eta umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 677-689227. Aitziber.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 651-836353.

– Administrazio lanak egingo nituzke arratsalde. Deitu 15.00etatik 19.00etara. Tel. 943-702089.

– Emakumea eskaintzen da egunez nagusiak zaintzeko. Tel. 676-858210.

– Mutila eskaintzen da kamarero edo sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 603-580958.

– Mutila eskaintzen da kamarero edo sukalde-laguntzaile moduan eta igeltsero-peoi jarduteko. Tel. 696-849004.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 696-509360.

– Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 695-303240.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 669-068439.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 671-742142.

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 677-330628.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 619-507664.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Tel. 648-603029.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 638-047847.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka. Tel. 618-052967.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gau eta egunez. Tel. 676-858210.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko externa moduan. Tel. 649-044223.

– Gizonezkoa eskaintzen da tabernetan lan egiteko, garbiketarako eta igeltsero jarduteko. Tel. 699-232823.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko orduka. Tel. 699-232823.

– Neska eskaintzen da orduka lan egiteko (13.30-16.00/20.00-22.30). Nagusiak zaintzen eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 690-925929.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 681-322442.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 681-322442.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 695-303237.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 646-821678.

– Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 658-100602.

4.2. Langile bila

– Neska euskalduna behar da ume bi zaintzeko. Autoa izatea beharrezkoa. Deitu 20.00etatik aurrera. Tel. 605-714109.

– Emakumea behar da etxeko lanetarako. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 649-388582.

– Kamarera behar da jatetxe batean. Tel. 943-121262.

– Asteburuetarako kamarera/o(ak) behar dira. Euskaraz egitea ezinbestekoa. Tel. 679-950907.

– Tabernarako sukaldaria behar da. Tel. 605-771995.

– Txoferra behar da astelehenetik ostegunera orduka lan egiteko. Eskaintza egokia lanik gabe edo ikasten bazaude. Tel. 628-061783.

– Kamarera/o euskalduna behar da asteburu eta jai-egunetarako. Esperientziarekin. Tel. 615-759399.

– Ugan Klubak pilates eta spinning monitorea behar du. Bidali kurrikuluma ugandak@euskalnet.net helbidera.

– Aho eta hortz higienista behar da hortz-klinika batean. Bidali kurrikuluma: dentalweb@hotmail.com

– Unibertsitatean diharduen neska euskalduna behar da arratsalde umeak zaintzeko. Tel. 605-714109.

– Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 687-044311.

– Sukaldaria behar da Kultu tabernetan. Tel. 685-738435.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– DBHko 4. mailako ikasleak irakastea behar du klase partikularrak jasotzeko. Tel. 686-909088.

5.2. Eskaintzak

– Informatikako klase indibidualak ematen dira. Bakoitzaren neurria, oinarriko mailatik hasita: programazioa, web orriak, baita oposaketarako ere. Tel. 679-740061.

– Euskarazko klaseak ematen ditut maila guztietan. Tel. 620-608065.

– Lizentziatua eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 699-069080.

– Alemanierazko klaseak ematen ditut haur eta helduentzat. Tel. 647-275374.

– Mutila euskalduna eskaintzen da LH eta DBHko klaseak emateko. Disponibilitate osoa. Tel. 636-252957.

– Ingeleseko klaseak ematen ditut. Erresuma Batuan jaioa eta tituluduna. Esperientzia. Tel. 639-434668.

– Ingenieritza titulodun neska eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 670-251265.

– Ingeleseko klaseak ematen ditut, heldu eta unibertsitariendako. Tel. 628-061783.

– Matematiketako klase partikularrak ematen ditut, DBH ikasleendako. Tel. 695-718855.

6. Denetarik


6.1. Salgai

– Funtzio askotariko robot aspiradorea salgai. Estrenatzeko. Oso merke. DVC 300 bideo-kamera digitala opari. Tel. 943-120030.

– Umearentzako kotxe-kapota salgai. Silver-Cross urdina. Egoera onean. Tel. 620-642654.

– Saxo altua salgai, Yamaha markakoa. Urtebete erabilia. 650 euro. Tel. 609-893898.

– Kotxe-kapota, silla eta maxi-coxia salgai. Egoera onean. 200 euro. Tel. 628-061783.



UNIVERSITY of CAMBRIDGE

ESOL Examinations

Authorised Centre

AZTERKETAK
EIBARREN eta DURANGON

MATRIKULAK: Urriaren 1etik 13ra arte

-AZTERKETA DATAK-

F.C.E. <small>COMPUTER BASED</small>	OSOA	Urriak 29, larunbata
C.A.E. <small>COMPUTER BASED</small>	OSOA	Urriak 29, larunbata
F.C.E.	AHOZKOA	Abenduak 3, larunbata
F.C.E.	IDATZIZKOA	Abenduak 10, larunbata
C.A.E.	OSOA	Abenduak 3, larunbata
C.P.E.	OSOA	Abenduak 3, larunbata


INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK:

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83
	Mondragon Lingua	943 71 20 55
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53
EIBAR:	Anglo-American	943 20 64 57
	Link Idiomas	943 20 39 59
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32
ELGOIBAR:	Kensington School of English	943 74 02 36
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44
OÑATI:	Mondragon Lingua	943 71 60 00
DEBA:	Akabi	606 80 00 66
DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
MENDARO:	Akabi	606 80 00 66
BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

ZEZEN BIDE



AUTO ESKOLA




ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

GIDA-BAIMENAK



San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



ORTODONTZIA IKUSIEZINAREKIN...



irribarrerik
onena
lortuko duzu!

...eta atera
egiezu etekina
hortz-zuriketan di-
tugun
**PROMOZIO
BEREZIEL.**

**Zatoz eta
KONTSULTA egin!**

**Badirelako
gauza batzuk
galtzea komeni
ez direnak...**

**IRAZABAL
KLINIKAn
txikienen
aho-hortzetako
prebentzioaren
alde egiten
dugu apustu.**



Egizuz PADI-ren azterketak.



IRAZABAL
clinica dental

Julian Etxebarria 12 - 1. Esk.
20.600 ETIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 20 85 52